Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 Plan Orokorraren jarraipena

2021. urtea

2022/06/08

cimas

ideas responsables, futuro sostenible

AURKIBIDEA

1 SARRERA 5

2 XEDEA ETA IRISMENA 5

3 EGOERAREN ADIERAZLEAK: HAZKUNDEAREN BIDEAN BERRIRO ERE 5

4 ABIAPUNTUKO EGOERA: GIPUZKOAKO HIRI HONDAKINAK KUDEATZEKO 2019-2030 ALDIRAKO PLAN OROKORRA 7

4.1 Programak eta jarduerak 7

4.1.1 Behatoki programa 7

4.1.2 Prebentzio programa 8

4.1.3 Kudeaketa programa 10

4.1.4 Deuseztatzea optimizatzeari buruzko programa 13

4.2 Programaren araberako kostuak 13

5 2021ERAKO AURREIKUSITAKO JARDUEREN BETETZE MAILAREN AZTERKETA 14

5.1 Jarraipen orokorra 14

5.2 Programen araberako jarraipena 18

5.2.1 Behatoki programa 18

5.2.2 Prebentzio programa 28

5.2.3 Kudeaketa programa 42

5.2.4 Deuseztapena optimizatzeari buruzko programa 65

6 GIPUZKOAKO HIRI HONDAKINAK KUDEATZEKO PLAN OROKORREKO ADIERAZLEEN BETETZE MAILAREN AZTERKETA, 2021. URTEA 66

6.1 Udal hondakinen sorrera eta kudeaketa Gipuzkoan 66

6.2 Adierazleen kalkulua 68

7 LEGE ETA PLANGINTZA AURRERAPEN BERRIAK 72

8 EPE LABUR-ERTAINERAKO ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK 77

9 ERANSKINAK 78

9.1 I. eranskina: Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren adierazleak, 2019-2030 78

TAULEN AURKIBIDEA

1. taula. Gipuzkoako eta EAEko hiri hondakinen inbentarioa, 2020 (tonak eta %) 7
2. taula. Behatoki programaren jarduerak 8
3. taula. Prebentzio programaren jarduerak 9
4. taula. Gaikako bilketarako programaren jarduerak 10
5. taula. Berrerabiltzeko prestatzeko programaren jarduerak 11
6. taula. Birziklatze programaren jarduerak 12
7. taula. Balorizazio jarduerak: materiala eta energia 13
8. taula. Ezabapena optimizatzeko jarduerak 13
9. taula. 2021eko guztizko kostuak, programen arabera urtez urte emanak (euroak, 2018) eta Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrean aurreikusiak. 14
10. taula. Jardueren puntuazioak aurrerapen mailaren arabera 14
11. taula. 2021ean Behatoki programaren barruan egindako jardueren aurrerapen maila 15
12. taula. Prebentzio programan 2021ean egindako jardueren aurrerapen maila 15
13. taula. Gaikako bilketarako programan 2021ean egindako jardueren aurrerapen maila 16
14. taula. Berrerabiltzeko prestatzeko programan 2021ean egindako jardueren aurrerapen maila 16
15. taula. Birziklatzeko programan 2021ean egindako jardueren aurrerapen maila 16
16. taula. Balorizazio programaren barruan 2021ean egindako jardueren aurrerapen maila: materialak eta energia 16
17. taula. Deusestatzea optimizatzeko programan 2021ean egindako jardueren aurrerapen maila 16
18. taula. Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorreko 2021eko programetarako aurreikusitako guztizko kostuak eta kostu errealak, 2021. urtea (eurotan, 2018) 17
19. taula. Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren adierazle nagusien kalkulua, 2021. urtea 68

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. irudia. Kontsumoko prezioen indizea Gipuzkoan, EAEn eta Espainian, 2002-2021. 2016ko oinarria 6
2. irudia. Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 aldirako Plan Orokorreko programen aurrerapen maila, 2021 17
5. irudia. Sorkuntza datuak, Gipuzkoako bilketa motaren arabera banatuta. 2020-2021 urteak 66
4. irudia. Gipuzkoa+ gaikako bilketa, hondakin tipologiaren arabera (tonak eta %). 2007-2021 urteak 67
3. irudia. Birziklatze datuak, frakzioen eta guztizkoaren arabera, eta gaikako bilketaren tasa + Gipuzkoako gainerako zatien berreskurapena. 2021 vs 2020 68

1 SARRERA

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren bitartez, 2019an onartu zuen Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 aldirako Plan Orokor berria. Plan hartan, zenbait helburu, printzipio eta programa ezarri zituen, hondakin gutxiago sortzea helburu gisa harturik, eta, horretarako, prebentzio, kudeaketa eta deuseztatze maila egokiak izango dira ardatza.

Plan horretan, indarrean dagoen legediak eta plangintzak ezartzen dituen helburu espezifikoak biltzen dira. Alabaina, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2030erako Plan Orokorrak helburu estrategiko hau du: Europako eta Estatuko legedian xedatutako birziklatze tasa baino helburu handinahiago bat lortzea, eta, ildo horretan, 2030erako berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestakuntza tasa % 70koa izatea.

Duela gutxi argitaratutako 2021eko Gipuzkoako hondakinen inbentarioak ondorio nagusi hauek atera ditu: 2021ean, birziklatze-tasa % 55,32koa izan da, aurreko urtean baino ehuneko 0,88 puntu handiagoa. Hori horrela, gainditu egin du Europak 2025erako ezarritako % 55eko helburua. Goranzko joera argia nabari da, hortaz, ehuneko 13,07 puntu igo baita tasa hori 2015etik. Gaikako bilketari dagokionez ere, goranzko joerari eutsi zaio, eta % 60tik gorakoa izan da lehen aldiz, aurreko urtean baino ehuneko puntu erdi gehiago. Horrek adierazten duenez, Gipuzkoako hondakinen kudeaketa ereduak sendotzen jarraitzen du urtetik urtera, eta eredu hori erreferentzia ari da bihurtzen hala Euskadin nola Espainian.

Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2030erako Plan Orokorraren indarraldiko hirugarren urtea igaro denez, jarduera asko egin dira haren esparruan, eta horiek guztiak aztertu egin behar dira, 2021. urtean lortutako helburuak zer neurritan bete ote diren ebaluatzeko.

2 XEDEA ETA IRISMENA

Dokumentu honen xedea da Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2030erako Plan Orokorraren esparruan 2021ean egindako jarduerak ebaluatzea, eta, hala, horien eta urte horretan lortutako sorkuntza eta kudeaketa emaitzen arteko harremana bilatzea. Hori guztia, Gipuzkoako Lurralde Historikoko ekonomia zirkularraren kontzeptuaren barruan.

Horretaz gainera, planean jasotako hondakinen sorrerari eta kudeaketari buruzko adierazleak ebaluatuko dira, 2021ari berari dagokionez.

3 EGOERAREN ADIERAZLEAK: HAZKUNDEAREN BIDEAN BERRIRO ERE

Hondakinen adierazleez gainera, ekonomia zirkularrak beste aldagai batzuk ere hartzen ditu kontuan, eta komeni da horiek ere aztertzea. 2020an zehar eta 2021aren hasieran, COVID-19aren inpaktuek aldatu egin dituzte haietako asko, eta, osasunaren eta gizartearen arloan ez ezik, munduko ekonomian ere nabaritu dira ondorioak.

ADEGIren *Gipuzkoako koiuntura ekonomikoa, 2021eko urria: susperraldia sendotzen ari da, arriskuekin izanik ere* txostenean jasotakoaren arabera, 2021eko azken hiruhilekoan, munduko

ekonomia **hazkundearen bidean** zegoen, txertaketa kanpainaren aurrerapenari, COVID-19a kontrolatzeko neurriak lasaitu izanari eta suspertze ekonomikoan eragin positiboa zuten zerga pizgarriei esker. Industriak ageri zuen susperraldiari zerbitzuen sektorea gehitu behar zaio, baita turismoarekin loturarik estuena duten adarrak ere.

Hala ere, krisiak agerian utzi ditu ekonomian inpaktu nabarmena izan duten arazoak; esate baterako, hornidura kateetan izaniko arazoak eta lehengaien prezioen igoera handiak. Horrek guztiak inflazio tentsioak sortu ditu, eta, baduten arren arriskurik, badirudi aldi baterakoak eta iragankorrak izango direla.

Gipuzkoan ere tankera bertsuko egoera ikusten da. Urteko lehen hiruhilekoan ia geldialdia izan ondoren, jarduera ekonomikoak gora egin du bigarren hiruhilekoan, eta aurrera egin du aurreko hiruhilekoaren aldean. Euskadi osorako emaitzek adierazten dutenez, dinamismo hori, neurri handi batean, familien kontsumoak ageri duen gorakada handiari zor zaio, bi hiruhilekotan jarraian negatiboa izan ondoren. Txostenaren arabera, lehengaien hornikuntza eta/edo prezioak bihurtu dira Gipuzkoako enpresen kezka nagusi, COVID-19aren ondotik.

Euskadiko **barne produktu gordina (BPGd)** % 5,6 hazi zen 2021ean, eta urte horretan 49.120 lanpostu garbi berreskuratu ziren, 2020an baino % 5,5 gehiago. Bestalde, 2021ean susperraldi ekonomikoa % 6,1ekoa izan zen Araban, % 5,7koa Gipuzkoan eta % 5,3koa Bizkaian. EUSTATen hiruhilekoko kontuen aurrerapenak jasotzen duenez, Euskadiko jarduera ekonomikoak goranzko joerari eutsi dio 2022ko lehen hiruhilekoan.

Bestalde, **kontsumoko prezioen indizeak (KPI)** goranzko joera ageri du 2002. urteaz geroztik (2008-2009, 2013-2016 eta 2019-2020 urteetan izan ezik, horietan geldialdia erregistratu baitzen hazkundean). COVID-19ak ekarritako ondorioak direla eta, KPIaren igoera oso esanguratsua izan da 2020 eta 2021 artean. Ikus daitekeenez, joera berbera ageri da estatuan, autonomia erkidegoan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan.

1. irudia. Kontsumoko prezioen indizea Gipuzkoan, EAEn eta Espainian, 2002-2021. 2016ko oinarria



Iturria: Kontsumoko prezioen indizea (INE)

Udal hondakinen kudeaketari dagokionez, Gipuzkoako eta Euskal Autonomia Erkidegoko azken urteko datuak eta 2020ko EAEkoak alderatzen baditugu, ikusiko dugu Gipuzkoan % 13an baino gehiagoan gainditzen duela autonomia erkidegoko tasa. Gipuzkoako deuseztatze datuak hartzen

baditugu ere, nabarmen hobeak dira EAEko tasekin alderaturik. Gipuzkoak hiri hondakinen % 4 baino ez du deuseztatzen, eta EAEn, berriz, % 19tik gorakoa da tasa hori.

1. taula. Gipuzkoako eta EAEko hiri hondakinen inbentarioa, 2020 (tonak eta %)

Lurraldea	Birziklatzea	Balorizazio energetikoa	Deuseztatzea	Galerak eta biltegiratzea	Guztira
Gipuzkoa	176.634 (% 55,6)	128.845 (% 40,5)	12.299 (% 3,9)	157 (% 0,0)	317.935
EAE	415.164 (% 42,0)	271.069 (% 27,4)	192.732 (% 19,5)	108.620 (% 11,0)	987.585

Iturria: Gipuzkoako Hondakinen Behatokia eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiri hondakin solidoen estatistika

4 ABIAPUNTUKO EGOERA: GIPUZKOAKO HIRI HONDAKINAK KUDEATZEKO 2019-2030 ALDIRAKO PLAN OROKORRA

Jarraian, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorreko programen deskribapena eta horietako bakoitzaren jarduera zerrenda jasotzen da, 2021erako aurreikusitako gauzatze epea dutenak nabarmenduta.

4.1 Programak eta jarduerak

4.1.1 Behatoki programa

Programa transbertsal bat da, eta urteak igaro ahala egiten diren emaitzak eta txostenak biltzera eta jendartean zabaltzera bideratua da, helburuak betetzen diren heinean. Behar bezala ezartzeko, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Behatokiaren laguntza du. Haren eginkizun nagusia da lurraldeko hiri hondakinei buruzko informazioa irizpide homogeneoen arabera biltzea, prestatzea eta zabaltzea, eta, orobat, haien kudeaketari buruzko alderdi guztien etengabeko jarraipena egitea.

Informazio horri dagokionez, behatokiak Gipuzkoako hiri hondakinen egoerari eta bilakaerari buruzko datuak biltzen eta ematen ditu, esparru horretako erabakiak hartzeko lagungarria den heinean, eta, gainera, gai horretaz interesatzen den pertsona edo erakunde oro behar bezala informatzea ahalbidetzen du.

Era berean, eta aurrekoarekin bat etorriz, behatokia erreminta egokia da hondakinak murrizteko eta birziklatzeko ezarritako helburuak lortzeko bidean. Alde horretatik, behatokiak ekonomia linealaren eredua eredu zirkular baterantz aldatzea xede duten jarduerak sustatzen ditu; eredu zirkular horretan, baliabidetzat hartzen dira hondakinak.

Bestalde, behatokiak Gipuzkoako hiri hondakinen tasunei buruzko informazioa biltzen du, eta aldizkako karakterizazioen bidez aztertzen dira.

Orobat, behatokiak badu alderdi pedagogiko bat ere, eta haren bidez herritarrentzat interesgarria den informazioa zabaldu nahi du. Era berean, ikerketaren alorrean diharduten gazteei laguntza eman nahi die, hiri hondakinen prebentzioaren, berrerabileraren eta gaikako bilketaren esparruan proiektuak garatzeko.

Alderdi horiekin guztiekin loturik, taula honetan jaso dira Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren indarraldian programa hau betetzeko aurreikusitako ekintzak, eta, zehazki, 2021erako planifikaturikoak.

2. taula. Behatoki programaren jarduerak

Erreferentzia	Ekintza	2021erako aurreikusia
BEHATOKIA-1	Interesgarriak izan daitezkeen eta areagotzen ari diren hondakinen karakterizazioak egitea eta toki erakundeek eta kudeatzaileek eginiko karakterizazioak biltzea.	EZ
BEHATOKIA-2	Gipuzkoako hondakinen sorkuntzako eta gaikako bilketarako datu baseen kudeaketa sistemetako irizpideak bateratzea, hobetzea, mantentzea eta ustiatzea: SIGRU, web plataforma eta beste aplikazio batzuk.	BAI
BEHATOKIA-3	Web edukiak eguneratzea eta hondakinen sorkuntzari eta gaikako bilketari buruzko aldizkako txostenak argitaratzea. Alerta goiztiarreko txostenak egitea (2018/850 Zuzentaraua)	BAI
BEHATOKIA-4	Behatokiaren Mahaia osorik garatzea organo tekniko eta aholku emaile gisa, eta gaikako lantaldeak sortzea eragile interesdunekin	BAI
BEHATOKIA-5	Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 aldirako Plan Orokorraren jarraipen txostenak idaztea	EZ
BEHATOKIA-6	Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 aldirako Plan Orokorraren informazio, jarraipen eta ebaluazio batzordea abian jartzea	BAI
BEHATOKIA-7	Hondakinen hierarkia betetzera bideratutako informazio, sentsibilizazio eta komunikazio plan bat egitea eta garatzea: Prebentzio Astea, informazio eta sentsibilizazio kanpaina orokorrak, programa bakoitzaren eta eragileen kanpaina espezifikoak koordinatzea, eta abar.	BAI
BEHATOKIA-8	Hondakinak Prebenitzeko Europako Astea egitea.	BAI
BEHATOKIA-9	Zenbait udalerrik egindako esperientzia arrakastatsuak behatokiaren bidez identifikatzea eta zabaltzea. Bilketako jardunbide onenak zabaltzea.	BAI
BEHATOKIA-10	Hiri Hondakinak Koordinatzeko Organoarekin koordinatzea	EZ

4.1.2 Prebentzio programa

Prebentzioa da hondakinen kudeaketak aurrez aurre duen erronka nagusia. Hondakin gutxiago sortzea eta haien arriskugarritasuna murriztea funtsezkoa da ingurumenean duten inpaktua murrizteko. Gaur egun, Gipuzkoako herritarrek sentsibilizazio eta kontzientziazio maila handia dute hondakinen arloan, jarduera aldi biziari eta hainbat ekintza esker, baita lurralde historikoko administrazio publikoek garatutako ekintzei esker ere. Proposatutako kanpainekin borondatez bat egiten duten herritar horiek dira prebentzioaren, birziklatzearen eta konpostajearen arloan etengabe hobetzeko indargune nagusia, eta haiek dira, orobat, hiri hondakinak kudeatzeko politikei egindako ekarpenak eta iradokizunak kontuan hartzeko aktibo nagusia ere.

Prebentzioak abantaila handiak ditu hondakinak kudeatzeko gainerako aukeren aldean. Horien artean, aipatzekoak dira lehengaien kontsumoa murriztea, hondakinen ingurumen inpaktu txikiagoa eragitea eta hondakinak kudeatzeko kostuak merkatzea. Hauek dira Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak prebentzioaren eta berrerabileraren arloan garatutako lan ildo nagusietako batzuk:

- Hiri hondakinak prebenitzeko, berrerabiltzeko eta birziklatzeko jardueretarako dirulaguntzen programa.
- Elikagaien xahuketa prebenitzea.
- Hainbat erakunde, elkarte eta enpresarekin lankidetzan aritzea, hondakinak prebenitzeko, berrerabiltzeko eta birziklatzeko jardueretarako, eta, hala ekonomia zirkularrera bideratutako proiektuak abian jartzeko.
- Etxeko konpostajea.

Taula honetan jaso dira Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren indarraldian programa hau betetzeko aurreikusitako ekintzak, eta, zehazki, 2021erako aurreikusitakoak.

3. taula. Prebentzio programaren jarduerak

Erreferentzia	Ekintza	2021erako aurreikusia
PREBENTZIOA-1	Hondakinak sortzeagatiko ordainketa politikak bultzatzea, herritarrei eta merkataritza eta industria sektoreei zuzenduta.	BAI
PREBENTZIOA-2	Gipuzkoako moda jasangarriko klusterra sustatzea (GK Green Fashion): jasangarritasun irizpideetan sakontzea, katalogoa zabaltzea diseinatzaile eta enpresa gipuzkoar gehiagorekin, I+G+Bko ekintza pilotuak bultzatzea, sustatzeko eta ikusarazteko ekintzak (Moda Jasangarriaren Desfilea, tokiko marka berriak garatzeko espazioak, etab.), kontsumo arduratsuko tresnak eta abar nazioartekotzea eta zabaltzea, beste kluster eta eragile batzuekin lankidetzan (Gipuzkoa de Moda, Slow Fashion Next...).	BAI
PREBENTZIOA-3	Etxeetan eta merkataritzan kontsumo arduratsua sustatzea, tokiko produktua, konponketa, trukea eta bigarren eskuko produktuak sustatuz.	BAI
PREBENTZIOA-4	Gipuzkoako Foru Aldundian erosketa berde eta zirkularraren programa bultzatzea, berrerabilitako eta birziklatutako produktuak eta materialak sar daitezen: produktuak, zerbitzuak, obrak eta instalazioak.	BAI
PREBENTZIOA-5	Ekodiseinua bultzatzea	BAI
PREBENTZIOA-6	Gipuzkoako Foru Aldundiaren eraikin publikoetan ingurumena kudeatzeko sistemak bultzatzea: sortutako hondakinak minimizatzea eta kudeatzea	BAI
PREBENTZIOA-7	Mankomunitate, udal, enpresa eta irabazi asmorik gabeko elkarteentzako prebentzio, gaikako bilketa, berrerabiltzeko prestakuntza eta birziklapenaren arloetako laguntzen foru programari eustea (elkarrekiko norgehiagokako dirulaguntzak eta lankidetza hitzarmen izendunak).	BAI
PREBENTZIOA-8	Gazteentzako I+G+Bko beken foru programari eustea: prebentzioa, produktu eta zerbitzuen ekodiseinua, berrerabiltzeko prestatzea, gaikako bilketa, birziklatzea eta balorizazioa.	BAI
PREBENTZIOA-9	Azken Minutua programa indartzea Gipuzkoako Elikagai Bankuaren (GEB) bidez: emaileen kopurua handitzea eta aprobetxatzeko formula berriak.	BAI
PREBENTZIOA-10	Herritarren sentsibilizaziorako kanpainak: etxean eta jatetxeetan xahutzea prebenitzea (Gourmet Bag).	BAI
PREBENTZIOA-11	Ostalaritzaren, jatetxeen, catering zerbitzuen eta bestelako sortzaile batzuen sektoretik datozen elikagaien soberakinak biltzeko eta banatzeko sare bat bultzatzea. Sare hori gizarte laguntzako zentroetara zabaltzea.	BAI

Erreferentzia	Ekintza	2021erako aurreikusia
PREBENTZIOA-12	Elikadura soberakinen sorkuntza eta prebentziorako adierazleen jarraipena. Diagnostikoa eguneratzea.	EZ
PREBENTZIOA-13	Prebentzioko eta gaikako bilketako irizpideak sartzea eta zabaltzea sukaldaritzako hezkuntza guneetan: sortutako azpiproduktuak eta gastronomia sorkuntzan egindako ikerketak, azpiproduktuak berrerabilita.	BAI
PREBENTZIOA-14	Herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak egitea, ontzi hondakin gutxiago sortzeko erosketa jardunbide egokiak sustatzeko: erosketarako ontzi berrerabilgarriak, ontziratu gabeko produktuak, plastikozko poltsak, ontzi motak eta birziklagarritasuna, etab.	BAI
PREBENTZIOA-15	Txorrotako uraren kontsumoa sustatzea herritarren artean, oro har.	BAI
PREBENTZIOA-16	Itzuli daitezkeen botilen erabilera sustatzea uraren, sagardoaren eta ontziratutako ardoaren sektoreetan.	BAI
PREBENTZIOA-17	Salmentarako jardunbide egokiak sustatzea, merkataritza sektorean ontzi hondakin gutxiago sortzeko.	BAI
PREBENTZIOA-18	Herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak sustatzea, etxeko hondakin arriskutsuak prebenitzeko.	BAI
PREBENTZIOA-19	Gipuzkoako merkataritza eta industria sektoreen hondakinak prebenitzeko zerga pizgarrien azterketa egitea.	EZ
PREBENTZIOA-20	Sakabanatutako zaborra prebenitzea eta murriztea: sakabanatutako zaborraren jatorri fokuak aztertzea, ibaietan, hondartzetan eta itsasoan zaborra prebenitzeko eta murrizteko neurriak definitzea eta garatzea, eta herritarrak sentsibilizatzeko neurriak hartzea.	EZ
PREBENTZIOA-21	Etxekoak ez diren sorgailuak murriztu, berrerabili eta birziklatzeari buruzko esperientzia pilotuak egitea (borondatezko akordioak eragile ekonomikoekin) Birziklatze Klusterraren esparruan.	BAI
PREBENTZIOA-22	Birziklatutako eta berrerabilitako produktuak bultzatzea, eta, horretarako, obra eta zerbitzuen kontratu publikoetan nahitaezko ehuneko bat ipintzea.	BAI

4.1.3 Kudeaketa programa

4.1.3.1 Gaikako bilketarako programa

Gipuzkoan ezarritako gaikako bilketa ereduak hobetzen eta sendotzen laguntzeko ekintzen ondorioz, urtetik urtera handitu egiten da bilketa indizea. 2021ean gaikako bilketaren tasa % 58,07koa izan da. Ehuneko hori Bizkaian eta Araban erregistratutakoa baino askoz handiagoa bada ere, eta nahiz eta Gipuzkoako udalerri askok % 70-80 inguruko indizeak dituzten gaikako bilketan, oraindik ere badago zer hobetu, balio horiek lurralde osoan areagotu ahal izateko.

Taula honetan jaso dira Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren indarraldian programa hau betetzeko aurreikusitako ekintzak, eta, zehazki, 2021erako aurreikusitakoak.

4. taula. Gaikako bilketarako programaren jarduerak

Erreferentzia	Ekintza	2021erako aurreikusia
GAIKAKO BILKETA-1	Mankomunitateei laguntzea hondakinen gaikako bilketarako eredu eta sistema oso eraginkorrak eta jasangarriak bultzatzen eta etengabe hobetzen, eta, horretarako, neurri hauek sustatzea: ereduen eta sistemen azterketa bateratua, lurralde mailako irizpideen koordinazioa, erabiltzaileen ikuspegiaren azterketa eta integrazioa (genero irizpideak barne), sistema adimendunak txertatzea eta emaitzen ebaluazioa.	EZ
GAIKAKO BILKETA-2	Mankomunitateekin batera, garbiguneen egokitzapena eta hondakinen korronte guztietarako administrazio irizpideen homogeneizazioa sustatzea eta haien erabilera bultzatzea –barnean harturik fibrozementu estrukturala, obra txikietako hondakinak eta gainerako etxeko hondakin arriskutsuak–, baita kopuru jakin batzuetatik aurrera kobratzeko aukera aurreikustea ere.	BAI
GAIKAKO BILKETA-3	Transferentzia instalazioekin lotutako beharren analisia egitea.	EZ
GAIKAKO BILKETA-4	Informazio eta sentsibilizazio kanpainak egitea.	BAI

4.1.3.2 Berrerabiltzeko prestatzeko programa

2021ean, Gipuzkoak lurraldean sortutako hondakinak behin betiko berrerabiltzea bultzatzeko beharrezko urratsak egin ditu, eta, horretarako, etorkizuneko Berrerabilerarako Prestakuntza Zentroa diseinatzen eta definitzen jarraitu du. Zentro hori ehun hondakinak, tamaina handikoak eta tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak konpontzera eta berrerabiltzera zuzenduta dago, eta Gipuzkoako Ingurumen Guneko azpiegiturak osatzen ditu. Haren xedea da Gipuzkoako berrerabilera tasa % 30 areagotzea.

Taula honetan jaso dira jarduera hori eta Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren indarraldian programa hau betetzeko aurreikusitako ekintzak, eta, zehazki, 2021erako aurreikusitakoak.

5. taula. Berrerabiltzeko prestatzeko programaren jarduerak

Erreferentzia	Ekintza	2021erako aurreikusia
BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-1	Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak, tamaina handikoak, ehunak eta beste tresna batzuk saldu, trukatu, konpondu eta birmanufakturatzeko sareak eta zerbitzuak babestea eta sustatzea.	BAI
BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-2	Garbiguneak tresna elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzko 110/2015 Errege Dekretura egokitzeko sustapena, mankomunitateekin batera.	EZ
BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-3	Garbiguneen eta minigarbiguneen sarea etengabe hobetzen laguntzea, berrerabiltzeko prestakuntza sustatzeko.	BAI
BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-4	Berrerabilerarako Prestakuntza Zentro (BPZ) baten beharrak aztertzea.	EZ
BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-5	Kontsumitzaileentzako informazioa hobetzea eta produktu berrerabilgarriak merkaturatzea sustatzea (zuzenean edo berrerabiltzeko prestatu ondoren).	BAI

4.1.3.3 Birziklatzeko programa, konpostajea/biometanizazioa barne

Planaren barruko birziklatze programaren bidez, beharrezko erremintak eskaini nahi zaizkio Gipuzkoako Lurralde Historikoari, birziklatze indizeak handitzeko gai den kultura eta ekonomia sustatu ahal izan ditzan. Besteak beste, Ingurumen Departamentuak buru-belarri jardun du lanean GK Recycling birziklatze klusterra sendotzeko. Haren sorrerako xedea hazkunde ekonomikoa erraztea izan zen, eta, horretarako, enplegua sortzen duten jasangarritasun politikak abian jartzea, enpresen, administrazioen eta herritarren arteko lankidetzan oinarritutako eredu baten bidez.

Premisa horrekin jarraituz, taula honetan jaso dira Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren indarraldian programa hau betetzeko aurreikusitako ekintzak, eta, zehazki, 2021erako planifikatutakoak.

6. taula. Birziklatze programaren jarduerak

Erreferentzia	Ekintza	2021erako aurreikusia
BIRZIKLATZEA-1	Biometanizazioko/konpostajeko planten ustiapena sustatzea, kalitatea bermatzeko eta merkatura bideratutako produktu bat sortzera eta konpost eta digestatuaren merkaturatzea hobetzera bideratutako sistemen pean.	EZ
BIRZIKLATZEA-2	Konpostaje eta/edo biometanizazio instalazioen beharrak aztertzea.	EZ
BIRZIKLATZEA-3	Ontziak bereizteko Legazpiko eta Urnietako egungo plantek dituzten beharrak aztertzea. Zerbitzua zabaltzea, kasuak hala eskatzen badu, eta hondakinen kudeaketan hurbiltasun printzipioa indartzea.	EZ
BIRZIKLATZEA-4	Obra publikoan birziklatutako agregakinen erabilera sustatzea.	BAI
BIRZIKLATZEA-5	Gipuzkoako birziklatzearen klusterra (GK Recycling) bultzatzea ekonomia zirkularra sustatzeko: klusterra zabaltzea Gipuzkoako zentro teknologiko, unibertsitate, fundazio eta enpresa gehiago sar dadin; plan estrategikoa garatzea; I+G+Baren arloko ekintza pilotuak bultzatzea, irizpideak eta tresnak sustatu eta ikusarazteko; nazioartekotzeko eta hedatzeko ekintzak antolatzea Gipuzkoako Klima Aldaketaren Fundazioarekin eta beste kluster eta eragile batzuekin lankidetzan.	BAI
BIRZIKLATZEA-6	Esperientzia arrakastatsuak trukatzea, identifikatzea eta zabaltzea, Gipuzkoako GK Recycling birziklatze klusterraren bidez. Bilketako jardunbide onenak zabaltzea.	BAI

4.1.3.4 Balorizazio programa: materiala eta energia

Gipuzkoako Ingurumen Gunearekin lotutako instalazioak dagoeneko martxan daudela kontuan hartuta, Ingurumen Departamentuaren ahaleginen helburua da instalazio horien ustiapena ahalik eta efizientzia, kalitate eta segurtasun berme handienekin egiten jarraitzea, betiere estandar horiek ingurumenarekin zein pertsonekin pentsaturik betearaziz. Planaren exekuzioak

aurrera egin ahala, departamentuak proiektu berriak egikaritzea sustatzen du, kalitate operatibo hori betetzen dela ebaluatzeko. Horretaz gainera, berritzen jarraitzen du, materialei balioa ematearen arloan I+G+Bko proiektuen bidez soluzio aitzindariak bilatzen dituzten proiektuetan.

Taula honetan jaso dira Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren indarraldian programa hau betetzeko aurreikusitako ekintzak, eta, zehazki, 2021erako aurreikusitakoak.

7. taula. Balorizazio jarduerak: materiala eta energia

Erreferentzia	Ekintza	2021erako aurreikusia
BALORIZAZIOA-1	I+G+Baren arloko laguntza, ekonomia zirkularreko eta bioekonomiako produktu berriei aplikatzeko.	BAI
BALORIZAZIOA-2	Gipuzkoako Ingurumen Gunearen azterketa eta jarraipen azterlanak.	BAI

4.1.4 Deuseztatzea optimizatzeari buruzko programa

Gipuzkoako Ingurumen Gunearen instalazioak abian jartzeari esker, Gipuzkoak ez ditu bideratzen zabortegira lehen mailako hondakinak, eta, horrenbestez, programa honen esparruan garatu beharreko ekintzak bigarren mailako hondakinen isurketa minimizatzera bideratu dira orain. Hori dela eta, zabortegian hondakin mota bakarra uzten da: balorizazio energetikoaren prozesuan sortutakoak, beste inola baliorik hartu ezin dutenak.

Taula honetan jaso dira Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren indarraldian programa hau betetzeko aurreikusitako ekintzak, eta, zehazki, 2021erako aurreikusitakoak.

8. taula. Ezabapena optimizatzeko jarduerak

Erreferentzia	Ekintza	2021erako aurreikusia
DEUSEZTATZEA-1	Bigarren mailako hiri hondakinen isurketa minimizatzea eta optimizatzea.	BAI
DEUSEZTATZEA-2	Zabortegian utzitako bigarren mailako hiri hondakinen kalitatea eta trazabilitatea kontrolatzeko sistema eraginkor bat ezartzea, 2018/850 Zuzentaraua betetzen dela bermatzeko.	BAI

4.2 Programaren araberako kostuak

Dokumentuaren 3. eranskineko tauletan jasotzen dira Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2030eko Plan Orokorrean zehazten diren helburuak betetzeko abian jarri beharreko jarduerei lotutako kostuak, programen arabera banakatuta eta urtez urte.

Taula honetan, berriz, laburbildurik jasotzen dira 2021. urtean gauzatzea aurreikusten zen ekintzen jarduera kopurua eta haien kostuak[1].

[1] Dokumentu honetan jasotako balio ekonomikoek barnean hartzen dute BEZa.

9. taula. 2021eko guztizko kostuak, programen arabera urtez urte emanak (euroak, 2018) eta Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrean aurreikusiak.

Jarduera	Euroak	Jarduera kopurua
Behatoki programa	223.000	7
Prebentzio programa	1.640.000	19
Gaikako bilketarako programa	110.000	2
Berrerabiltzeko prestatzeko programa	100.000	3
Birziklatzeko programa	370.000	3
Balorizazio programa: materiala eta energia	434.000	2
Deuseztatzea optimizatzeari buruzko programa	20.000	2
Jarduera guztien kostua	**2.897.000**	**38**

Iturria: Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorra

5 2021ERAKO AURREIKUSITAKO JARDUEREN BETETZE MAILAREN AZTERKETA

5.1 Jarraipen orokorra

Planaren 2021eko aurrerapen eta gauzatze maila ebaluatzeko, urte horretan bertan garatutako jardueren azterketa egin da.

Horretarako, aurreikusitako ekintza bakoitza baloratuko da, eta kategoria bat emango zaie: hasi gabea, hasia, abian, aurreratua edo amaitua, eta puntuazio bat, helburu bakoitzaren aurrerapen maila definituko duena.

10. taula. Jardueren puntuazioak aurrerapen mailaren arabera

Ekintza	Aurrerapen maila	Lortu beharreko gehieneko puntuak
Hasi gabea	Hasi gabea	0 puntu
Hasita	% 1 eta % 25 artean gauzatua	1 puntu
Abian	% 26 eta % 75 artean gauzatua	2 puntu
Aurreratua	% 76 eta % 99 artean gauzatua	3 puntu
Amaitua	% 100ean gauzatua	4 puntu

Iturria: geuk egina

Ekintza bakoitzaren kategorizazioa Gipuzkoako Foru Aldundiaren taldearekin egindako kontraste prozesuaren bidez egin da.

Programa bakoitzaren aurrerapen maila zehazteko, kontuan hartuko da zenbat puntu lortu dituzten programaren ekintzek eta zenbat puntu lortu ahal ditzaketen gehienez. Hona hemen adibide teoriko bat.

Ekintzak:

- 1. ekintza, % 1 eta % 25 artean gauzatua = puntu 1
- 2. ekintza, % 100ean gauzatua = 4 puntu
- 3. ekintza, % 76 eta % 99 artean gauzatua = 3 puntu
- 4. ekintza, % 1 eta % 25 artean gauzatua = puntu 1
- 5. ekintza, hasi gabea = 0 puntu

Lortu beharreko gehieneko puntuazioa: 4 puntu x 5 ekintza = 20 puntu

Lortutako puntuazioa: 9 puntu (1+4+3+1)

Aurreratze maila: 9/20 = % 45

Atxikitako taula honetan ageri da programa bakoitzaren barruan garatutako jarduera bakoitzaren aurrerapen mailaren banakapena.

11. taula. 2021ean Behatoki programaren barruan egindako jardueren aurrerapen maila

Jarduera	Aurrerapen mailaren arabera lortutako puntuak
BEHATOKIA-2	4
BEHATOKIA-3	4
BEHATOKIA-4	4
BEHATOKIA-5	4
BEHATOKIA-6	4
BEHATOKIA-7	4
BEHATOKIA-8	4
BEHATOKIA-9	4

Iturria: geuk egina

12. taula. Prebentzio programan 2021ean egindako jardueren aurrerapen maila

Jarduera	Aurrerapen mailaren arabera lortutako puntuak
PREBENTZIOA-1	0
PREBENTZIOA-2	4
PREBENTZIOA-3	4
PREBENTZIOA-4	4
PREBENTZIOA-5	2
PREBENTZIOA-6	4
PREBENTZIOA-7	4
PREBENTZIOA-8	4
PREBENTZIOA-9	4
PREBENTZIOA-10	4

Jarduera	Aurrerapen mailaren arabera lortutako puntuak
PREBENTZIOA-11	4
PREBENTZIOA-13	4
PREBENTZIOA-14	4
PREBENTZIOA-15	4
PREBENTZIOA-16	4
PREBENTZIOA-17	4
PREBENTZIOA-18	2
PREBENTZIOA-20	4
PREBENTZIOA-21	0
PREBENTZIOA-22	4

Iturria: geuk egina

13. taula. Gaikako bilketarako programan 2021ean egindako jardueren aurrerapen maila

Jarduera	Aurrerapen mailaren arabera lortutako puntuak
GAIKAKO BILKETA-1	4
GAIKAKO BILKETA-2	4
GAIKAKO BILKETA-4	4

Iturria: geuk egina

14. taula. Berrerabiltzeko prestatzeko programan 2021ean egindako jardueren aurrerapen maila

Jarduera	Aurrerapen mailaren arabera lortutako puntuak
BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-1	4
BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-2	4
BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-3	4
BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-4	4
BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-5	4

Iturria: geuk egina

15. taula. Birziklatzeko programan 2021ean egindako jardueren aurrerapen maila

Jarduera	Aurrerapen mailaren arabera lortutako puntuak
BIRZIKLATZEA-2	4
BIRZIKLATZEA-4	4
BIRZIKLATZEA-5	4
BIRZIKLATZEA-6	4

Iturria: geuk egina

16. taula. Balorizazio programaren barruan 2021ean egindako jardueren aurrerapen maila: materialak eta energia

Jarduera	Aurrerapen mailaren arabera lortutako puntuak
BALORIZAZIOA-1	4
BALORIZAZIOA-2	4

Iturria: geuk egina

17. taula. Deuseztatzea optimizatzeko programan 2021ean egindako jardueren aurrerapen maila

Jarduera	Aurrerapen mailaren arabera lortutako puntuak
DEUSEZTATZEA-1	4
DEUSEZTATZEA-2	4

Iturria: geuk egina

Hurrengo irudian ikus daitekeenez, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrak 2021ean izaniko inplementazio maila (aurretik zerrendatutako jarduketek zenbaterainoko aurrerapena izan duten kontuan hartuta) **% 97**ra iristen da, programaka banaturik.

2. irudia. Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 aldirako Plan Orokorreko programen aurrerapen maila, 2021



Iturria: geuk egina

2021ean garatu beharreko jardueretarako aurreikusitako kostuak eta benetan gauzatutako partidak kontuan hartzen baditugu, ikusten da aurrekontuaren betetze maila % 98koa dela.

Hasierako aurrekontua programaren araberakoa zen, eta azkenean gauzatutakoa erantsitako taulan jaso da.

18. taula. Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorreko 2021eko programetarako aurreikusitako guztizko kostuak eta kostu errealak, 2021. urtea (eurotan, 2018)

Jarduera	Aurreikusia	Erreala	Betetze maila
Behatoki programa	223.000	255.601	% 115
Prebentzio programa	1.640.000	1.697.695	% 104
Gaikako bilketarako programa	110.000	25.280	% 23
Berrerabiltzeko prestatzeko programa	100.000	187.979	% 188
Birziklatzeko programa	370.000	254.635	% 69
Balorizazio programa: materiala eta energia	434.000	415.243	% 96
Deuseztatzea optimizatzeari buruzko programa	20.000	0	% 0
Jarduera guztien kostua	**2.897.000**	**2.836.433**	**% 98**

Esanguratsua da 2021ean behatokiak eginiko apustua; hau da, berrerabilpenerako prestaketa programak eta prebentzio programak, zeinek gainditu egiten baitute aurrekontuaren betetze

mailaren % 100. Gaikako bilketarako eta deuseztapenerako programak aurreikusitako aurrekontuaren oso azpitik geratu dira, nahiz eta urtean zehar jardueren garapenean aurrera egitea lortu duten.

5.2 Programen araberako jarraipena

5.2.1 Behatoki programa

Programa horrek 10 jarduera biltzen ditu guztira, eta 2021ean horietatik 7 gauzatzea zegoen aurreikusita. Hala ere, 2021ean aurreikusi gabeko ekintza bat ere egin da: BEHATOKIA-5.
Programaren aurrerapen maila % 100ekoa da, jarduera kopuruaren eta gauzatze mailaren arabera.

	**BEHATOKI PROGRAMA**	
BEHATOKIA-2	Gipuzkoako hondakinen sorkuntza eta gaikako bilketako datu basea kudeatzeko sistemen irizpideak bateratzea, sistema horiek hobetzea, mantentzea eta ustiatzea: SIGRU, web plataforma eta beste aplikazio batzuk.	Aurrerapen maila  0 €
BEHATOKIA-2.1	Plastic Footprint: aztarna plastikoa kalkulatzeko metodologien identifikazioa, analisia eta ebaluazioa, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan duen aplikagarritasuna.	· Proiektu horren xedea da nazioarteko metodologien azterketa xehatua egitea plastiko aztarna kalkulatzearen inguruan, horietako bakoitzaren ezaugarriak zehazteko eta Gipuzkoako Lurralde Historikorako duen aplikagarritasun maila ebaluatzeko tresna interaktibo bat sortzeko. · Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori. *Aurreratze maila: % 100* *Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[2]
BEHATOKIA-3	Web edukiak eguneratzea eta hondakinen sorkuntzari eta gaikako bilketari buruzko aldizkako txostenak argitaratzea. Alerta goiztiarreko txostenak egitea (2018/850 Zuzentaraua)	Aurrerapen maila  0 €
BEHATOKIA-3.1	Hondakinen gaineko datuak argitaratzea.	· 2021ean zehar, udal hondakinen sorrerarekin lotutako datuak bildu, aztertu eta argitaratu dira. Eta, zehazki, 2020. urteko inbentarioari dagozkion datuak argitaratu dira. Horiek hedatzeko bideak honako hauek izan dira, batez ere: Gipuzkoako

[2] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

		Foru Aldundiaren webgunea, departamentuaren sare sozialak, prentsa oharrak argitaratzea eta Ingurumen Departamentuko arduradunen agerraldiak. *Aurreratze maila: % 100* *Gauzatutako aurrekontua: 0 €*
BEHATOKIA-4	Behatokiaren Mahaia osorik garatzea organo tekniko eta aholku emaile gisa, eta gaikako lantaldeak sortzea eragile interesdunekin	Aurrerapen maila 100% 0 €
BEHATOKIA-4.1	EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030eko Plana onesteko prozesuaren jarraipena egiteko ekintzak.	· 2021eko ekainaren 29an, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Behatokiaren bilera bat egin zen, Euskadiko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030eko Planaren zirriborroa eztabaidatzeko. Horretaz gainera, planaren behin betiko onespenaren inguruan jarraipen lanak egin ziren. *Aurreratze maila: % 100* *Gauzatutako aurrekontua: 0 €*
BEHATOKIA-4.2	Garbiguneetako Gipuzkoako Hondakinen Behatokiaren bilera teknikoa	· 2021eko apirilaren 13an elkartu zen Garbiguneetako Gipuzkoako Hiri Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Behatoki teknikoa. *Aurreratze maila: % 100* *Gauzatutako aurrekontua: 0 €*
BEHATOKIA-5	Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 aldirako Plan Orokorraren jarraipen txostenak idaztea	Aurrerapen maila 100% 15.908 €
BEHATOKIA-5.1	Gipuzkoako Lurralde Historikoan jasotako eta hiri hondakinen tankerakoak diren industria, merkataritza eta erakundeetako hondakinen frakzio batzuen kudeaketa eta trazabilitatea aztertzea.	· Gipuzkoako hiri hondakinen tratamendu sistemaren gaineko kontrol handiagoa lortzeko, garrantzitsutzat jotzen da lurraldean sortutako erakundeetako, merkataritzako eta industriako hondakin asimilagarrien frakzio batzuen trazabilitatea eta azken kudeaketa hobeto ezagutzea. Egindako proiektuaren irismena honako hau izan zen: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Mankomunitate bakoitzean sortu eta kudeatutako hiri hondakinen tankerakoak diren industria, merkataritza eta erakundeetako hondakin frakzio horietako batzuen kantitateak aztertzea, hondakin horiek biltzeaz eta tratatzeaz arduratzen diren kudeatzaile pribatuekin harremanetan jartzea, Gipuzkoako Foru Aldundiari aholkularitza ematea datozen urteetan informazio hori modu arin eta errazean lortu ahal izateko

		mekanismoak ezar ditzan, eta amaierako txosten bat idaztea. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 11.979 €*
BEHATOKIA-5.2	Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren 2021eko jarraipen txostena idaztea.	· Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrean 2021erako aurreikusitako ekintzen gauzatze mailari buruzko jarraipen txostena idaztea. Txosten honetarako aurrekontua 2020ko aurrekontuetan zegoen esleituta. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*
BEHATOKIA-5.3	Dokumentuak itzultzeko zerbitzuak.	· BEHATOKIA-5 ekintzaren esparruan egindako dokumentuetakoren bat euskaratzea. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 3.929 €*
BEHATOKIA-6	Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 aldirako Plan Orokorraren informazio, jarraipen eta ebaluazio batzordea abian jartzea	Aurrerapen maila  0 €
BEHATOKIA-6.1	Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 aldirako Plan Orokorraren informazio, jarraipen eta ebaluazio batzordearen bilera.	· 2021eko apirilaren 20an, bilera bat egin zuen Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 aldirako Plan Orokorraren informazio, jarraipen eta ebaluazio batzordeak. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*
BEHATOKIA-7	Hondakinen hierarkia betetzera bideratutako informazio, sentsibilizazio eta komunikazio plan bat egitea eta garatzea: Prebentzio Astea, informazio eta sentsibilizazio kanpaina orokorrak, programa bakoitzaren eta eragileen kanpaina espezifikoak koordinatzea, eta abar.	Aurrerapen maila 118.467 €
BEHATOKIA-7.1	«213 km – Itsasoa bezain aske» proiektua gauzatzea	· 2021eko uztailean, BASK ehungintzako moda enpresak «213 km» proiektua gauzatu zuen euskal kostalde osoan zehar. BASK furgoneta batekin ibili zen euskal kostaldean barrena, eta, topagune gisa ez ezik, ingurumen arazoei buruzko informazio zabaltzeko eta markaren udaberri-udako bilduma erakusteko ere balio izan zuen. Ibilbide hartan, hainbat geldialdi egin zituen Gipuzkoako udalerri hauetan: Hondarribia, Donostia, Zarautz, Zumaia, Deba eta Mutriku. Proiektua eta haren emaitzak urriaren 21eko GK Green Fashion jardunaldian aurkeztu ziren.

		Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 6.050 €
BEHATOKIA-7.2	Ekonomia Zirkularrari buruzko 2021eko Zikloa	· Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak, Gipuzkoan ekonomia zirkularra garatzeko estrategiari jarraikiz, ekonomia zirkularrari buruzko hitzaldi ziklo bat antolatu zuen Ekonomisten Euskal Elkargoarekin batera. Ziklo haren helburua izan zen, hain zuzen, gai horri buruz kontzientzia piztea gizartean eta profesionalen artean, oro har, eta ekonomialarien kolektiboan, zehazkiago. 2021eko irailean eta urrian emandako jardunaldi haren bidez, ezagutza teknikoak zabaldu ziren eta erakundeetan ekonomia zirkularraren aplikazio eraginkorra errazteko tresnak eman ziren. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 9.506 €*
BEHATOKIA-7.3	«Zirkulua aurrerantz» proiektuaren garapena	· Hondakinak prebenitzeko eta birziklatzeko programa bat garatzea Scientia Karmelo Ikastetxean. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[3]
BEHATOKIA-7.4	Farmer Fish	· Farmer Fish proiektua garatzea Gipuzkoako ikastetxeetan. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 17.969 €*
BEHATOKIA-7.5	Ekonomia zirkularraren eta garapen jasangarriko helburuen inguruko autodiagnostikoko erreminta tokiko saltokientzat.	· Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak ebaluazio tresna bat garatu zuen ekonomia zirkularraren alorreko autodiagnostiko metodologia bat aplikatzeko, zeinak barnean hartuko baitu gizarte inpaktua Garapen Jasangarriko Helburuen eskutik, eta Donostiako zenbait saltokitan probatu zen. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 10.406 €*
BEHATOKIA-7.6	Klima aldaketari eta trantsizio digitalari buruzko ikastaro bat ematea	· 2021eko irailaren 13an eta 14an, Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV-EHU) antolatutako Uda Ikastaroen esparruan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak klima aldaketari eta trantsizio digitalari buruzko ikastaro bat antolatu zuen.

[3] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

		Ikastaro haren helburua zen gizarteak datozen urteetan landu beharko dituen eraldaketa sozial eta ekonomikoen ezagutzan sakontzea, krisi klimatikoari eta trantsizio ekologikoari loturik. Horretaz gainera, teknologia berriek eta digitalizazioak klimaren alorreko helburuak lortzeko izan dezaketen zeregina ere eman zen ezagutzera. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 6.229 €*
BEHATOKIA-7.7	Udal informazioa zabaltzeko informazio panel elektroniko bat ipintzea Beasaingo Igartza jauregian	· Beasaingo Udalak garatutako ekintza, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntzen deialdiaren esparruan, zeinaren ildoetako bat ekonomia zirkularra baita. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[4]
BEHATOKIA-7.8	Ekonomia zirkularrari buruzko jardunaldia Naturklima fundazioarekin lankidetzan.	· Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak, Naturklima fundazioarekin batera, ekonomia zirkularrari buruzko zenbait proiektu aurkezteko saio bat antolatu zuen 2021eko uztailean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren beraren bulegoetan. Jardunaldia antolatzeko, infografiak eta saioan azaldu zen mural digital bat prestatzeko zerbitzuak kontratatu ziren. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 4.066 €*
BEHATOKIA-7.9	«Garapen jasangarriko helburuak eta enpresaren gizarte erantzukizuna: ETEentzako etorkizuneko aukera bat» izeneko jardunaldia	· Elkargik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik, ETEei zuzendutako jardunaldi bat eman zuen 2021eko ekainean, garapen jasangarriko helburuekin loturik. Ekitaldia zuzenean egin zen Donostiako Miramar Jauregian, eta *streaming* bidez ere jarraitu ahal izan zen. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 3.449 €*
BEHATOKIA-7.10	Zero Waste irizpideei jarraikiz eginiko lehen film luzea.	· Proiektuak filmaketen alorrera eraman zuen ekonomia zirkularra, eta *zero waste* metodologia aplikatu zuen *Balea bat* izeneko film luzean. Funtsean, ekonomia zirkularra sustatu eta errodajearen inpaktua murriztu zuen: besteak beste, aktoreen eta estren elikadura zaindu eta hondakinak saihestu zituen. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen

[4] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

		Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori. *Aurreratze maila: % 100* *Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[5]
BEHATOKIA-7.11	Hondakinak eta kontsumoa murriztea eta kudeaketa efizientea garbiketaren sektorean	· Proiektuak garbiketa sektorean aritzen den enpresa batean ekonomia zirkularra bultzatzeko ekintzak ezartzeari heldu zion, eta, horretarako, ingurumen jasangarritasunerako eredu berri bat garatu zuen, hondakinen murrizketa, beharrezko baliabideen kontsumo efizienteagoa eta hondakinen kudeaketa egokiagoa bultzatuz. *Aurreratze maila: % 100* *Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[6]
BEHATOKIA-7.12	Dokumentuak itzultzeko zerbitzuak.	· Honako dokumentu hauek euskaratzea: *Moda sektorea eta ehungintza Espainian. Berrikuntza, heziketa, legedia eta beste gai batzuk*; *Moda kontsumoko ohiturak Gipuzkoako biztanlerian. Oztopoak eta aukerak praktika jasangarriak sustatzeko*; *Modaren sektorea. Ikuspegi internazional bat*. Kontratatutako enpresak hiru txostenen maketazio lanak ere egin zituen, euskarazko eta gaztelaniazko bertsioetan. *Aurreratze maila: % 100* *Gauzatutako aurrekontua: 13.324 €*
BEHATOKIA-7.13	Ekonomia zirkularraren hirugarren topaketa.	· 2021eko otsailaren 3, 4 eta 5ean egin zen Ekonomia Zirkularraren Nazioarteko III. Topaketa. Ekimena Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak bultzatu zuen, EuRIC (Birziklatze Industrien Europako Konfederazioa), FER (Berreskuratze eta Birziklatzearen Espainiako Federazioa) eta Euskal Herriko Unibertsitateko Ingeniaritza Eskolarekin lankidetzan. Aurten modu birtualean egin zen lehen aldiz, COVID-19ak eragindako osasun inguruabarren hala eskaturik. · Topaketa online egin izanak erraztu egin zuen ekonomia zirkularraren arloan nazioko eta nazioarteko liderren parte hartzea, eta, hari esker, enpresaren eta gizartearen alorrean ekonomia zirkularrarekin lotutako esperientzia eta proiektu nagusiak ezagutu nahi zituzten mundu zabaleko profesional gehiagorengana iritsi zen. Europar Batasuneko Ingurumen Batzordeko eta Circular Change institutuko (zirkulartasunaren arloko Europako erreferentzia institutua) ordezkariek ibilbide bat egin zuten, zirkulartasunaren,

[5] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua
[6] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

		berrikuntzaren eta jasangarritasunaren kontzeptua ekonomietan aplikatzeko jardunbide egokien kasu nagusiak hizpide harturik. Topaketan, GK Recycling klusterra osatzen duten Gipuzkoako birziklatze sektoreko enpresek ere parte hartu zuten, eta lurraldean garatzen ari diren aurrerapenak eta proiektuak azaldu zituzten; hala aukera ona izan zen etorkizuneko proiektuetarako lankidetza loturak ezartzeko eta beren proposamenekin nazioan eta nazioartean posizionatzeko. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 45.000 €*
BEHATOKIA-7.14	Ikus-entzunezko zerbitzuak.	· Bilerak eta ekitaldiak egiteko beharrezko baliabide materialen eta ikus-entzunezko giza baliabideen laguntza zerbitzuak. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 2.469 €*
BEHATOKIA-8	Hondakinak Prebenitzeko Europako Astea egitea.	Aurrerapen maila 121.226 €
BEHATOKIA-8.1	Hondakinak Prebenitzeko Europako Astea egitea.	2021eko Europako astearen esparruan, Gipuzkoako Foru Aldundiak jarduera hauek garatu ditu: - GK RECYCLING KARPA. Donostiako Boulevardean kokatutako GK Recycling karpa erakusleiho ezin hobea izan zen ekonomia zirkularra Gipuzkoako enpresen errealitatean nola gauzatzen den ikusteko, ukitzeko eta ulertzeko. Karpa hartan, GK Recycling birziklapenaren klusterreko hamabi enpresak egiten dituzten produktuak eta prozesuak erakutsi zituzten, barnean harturik haien garapenetan aplikatutako irizpide ekologikoak eta zirkularrak. Sektore askotako eragileak elkartu ziren (plastikoa, eraikuntza, proiektuak eta zerbitzuak, hondakinak birziklatzea, gizarte erakundeak...), lelo eta helburu berarekin: lurraldearen garapen ekonomikoaren aldeko ekarpenak egitea, eta pertsonen ongizatea eta gure planetarekiko errespetua ipintzea jomugan. - EKONOMIA ZIRKULARRA INGENIARITZAN. Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolak Europako astea aprobetxatu zuen Ekonomia Zirkularreko Ikasgelaren esparruan Industria 4.0ren inguruan garatzen ari diren proiektuak

		erakusteko, material berriak bilatzeko eta bizi zikloak aztertzeko. - RECYCLING TOP HABIC, EKONOMIA ZIRKULARRARI BURUZ PARTEKATZEKO ETA IKASTEKO TOPALEKUA. 2021ean, GK Recycling klusterraren laugarren Recycling Top topaketa egin zen, eta Habic klusterraren Tabakalerako egoitza aukeratu zen horretarako. Habic klusterrera egindako bisitaldiari esker, bertatik bertara ezagutu ahal izan zen Gipuzkoako altzarien, diseinuaren eta arkitekturaren sektorea egiten ari den ahalegina, haien arauetan jasangarritasun irizpideak txertatzeko. - BIRZIKLATZEKO ESKULTURAK ERAKUSTEA, «EKONOMIA ZIRKULARRA MODELATUZ». Filosofia hori Gipuzkoako Lanbide Heziketako ikastetxeetako ikasleen artean zabaltzeko eta sentsibilizatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak «Ekonomia zirkularra modelatuz» eskulturen hirugarren erakusketa antolatu zuen 2021ean. Horren bidez, Lanbide Heziketako gazteek hondakinak prebenitzeko eta behar bezala kudeatzeko egiten dituzten jarduerak islatu nahi izan ziren, ekonomia zirkularra bultzatzen laguntzen duten heinean. Ekintza Gipuzkoako Lanbide Heziketako ikastetxeei zuzendua izan zen. Ildo horretan, eskultura bat egiteko eskatu zitzaien, ekonomia zirkularra edo birziklapena nola ulertzen duten irudikatzeko. Eskulturak GK Recyclingen karpan ipini ziren ikusgai, Hondakinak Prebenitzeko Europako Astean zehar. - AURRERA ZIRKULARTASUNAREKIN. Scientia Karmelo Ikastetxeak ingurumen hezkuntzaren aldeko apustua egin du bere hezkuntza proiektuan. Hori babesteko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak aire zabaleko «ikasgela» bat eraikitzen lagundu die, naturarekin harremanetan egongo den hezkuntza gune berri bat, ekonomia zirkularrarekin lotutako kontzeptuak ukitu eta sentitu ahal izateko. Espazio bizia, malgua eta naturala eskaini zuten, eta aire zabaleko eskoletarako eta jolas edo kultura ekitaldietarako erabili zuten. - MUNDUKO EDUKIONTZIRIK HANDIENA. ECOVIDRIOk Gipuzkoa saritu zuen Mayor Impacto Ciudadano sariarekin, birziklatzearekin eta jasangarritasunarekin duen konpromisoagatik. Aitortza hori ospatzeko, beirazko ontzien munduko edukiontzirik handiena jarri zen Donostian, zeinaren bidez gipuzkoarrek beirazko

		ontziak birziklatzearen alorrean eginiko ahalegina sinbolizatzen baitzen. - EKONOMIA ZIRKULARREKO ELKARRIZKETAK ERAGILEEKIN ETA SURFRIDERREKIN. Kostaldea eta Zu proiektuaren testuinguruan, Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako itsas zaborren inpaktua murrizteko eta haien esperientzietatik eta erronketatik ikasteko lan egiten duten eragileengana hurbildu nahi izan du. Horretarako, esperientziak trukatzeko jardunaldi bat antolatu zuen Surfrider España gobernuz kanpoko erakundearen eskutik, itsas zaborren arazoa ezagutarazteko eta Gipuzkoako lurraldean soluzioak bilatzeko. Ekitaldian Gaea Elkarteari eman zitzaion esperientziaren berri. Haren helburua da itsas ingurunearen defentsa eta babesa sustatzea, inpaktu antropogenikoa minimizatzea eta itsas bizitzaren kontserbazioa erraztea, eta, horretarako, sentsibilizazio, kontzientziazio eta zabalpen lana egiten du gizartean. Era berean, Irri Sarri proiektuaren esperientzia ere aurkeztu zen. Egitasmo berritzaile haren helburua da erabilera bakarreko edalontziak baliatzeari uztea eta, haien tokian, kafe kikara bat erabiltzea. - GK GREEN FASHIONEN DEIA, ALDAKETAREN PARTE IZATEKO. Denok gara aldaketaren parte. Soineko bat, lepoko bat edo poltsa bat erosten dugun bakoitzean, enpresa mota baten, negozio eredu baten eta balore sistema baten alde bozkatzen dugu. Hori kontuan hartuta, prebentzioaren astearen esparruan, GK Green Fashioneko bazkideek manifestu bat sinatu zuten Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gunea eremuan, herritar guztiei dei bat egiteko: «*Pentsatu zerbait kontsumitzera zoazen bakoitzean, zure eskuetan baitaukazu merezi duen zerbaiti laguntzeko ahalmena*». DESFILE JASANGARRIA MIRAMAR JAUREGIAN. Joan den abenduaren 12an, Bertako Moda Jasangarriaren VI. Desfilea egin zen. Aurten, pandemiak bilakaera positiboa zuela ikusita, desfileaz aurrez aurre gozatu ahal izan zen Miramar Jauregian, baina urruneko konexioaren bidez ere jarraitu ahal izan zen, *www.gipuzkoademoda.com* webgunetik konektaturik. Desfilean GK Green Fashioneko 15 diseinatzailek eta markak hartu zuten parte, eta, ohi bezala, AEG Ikastetxearen Masterreko ikasleen sorkuntzak ere izan

		ziren. Izan ere, Gipuzkoan moda jasangarriko espezialitatea duen moda zentro bakarra da AEG Ikastetxea. Garberak eta Upcycling edukiontziak utzitako ehun materialekin egin zituzten sorkuntzak. - AFARI JASANGARRIA HELBURU SOLIDARIOAREKIN. Mahaia sukaldarien kolektiboarekin eta Basque Culinary Centerrekin batera egin zen afari hura. Haren helburua izan zen elikagaiak xahutzeari buruzko kontzientziazioa areagotzea eta Gipuzkoako Elikagaien Bankuarentzat dirua biltzea, premia areagotu egin baita, COVID-19ak eragindako krisi sanitario eta ekonomikoaren ondotik. Ekitaldiak edukiera murriztua izan zuen, eta lurraldeko eragile ekonomiko, instituzional eta sozial adierazgarrienak elkartu zituen. Ildo horretan, Gipuzkoako Elikagaien Bankuarekin lankidetza ekonomikoa sustatzera bideratuta egon zen, aurreikusten baita familia erabiltzaileen premiak areagotu egingo direla. Mahaia kolektiboko sukaldariek prestatu zuten afaria, jasangarritasunaren, ekoizpen ekologikoaren, 0 kilometroaren eta elikagaiak alferrik ez xahutzeko irizpideen arabera. - JATETXE ZERBITZU JASANGARRIARI BURUZKO JARDUNALDIA. Azaroaren 24an, asteazkena, Gastronomia Jasangarriaren X. Jardunaldia egin zen Basque Culinary Centerren. Edizio horretako leloa «Gastronomia aldaketa eragile gisa» izan zen, eta aliantza publiko-pribatuen arteko indarrak bateratu nahi izan zituen, jasangarritasunaren mezuari indar handiagoa emateko. - ANDOAINGO PLOGGING LASTERKETA. Hondakinak Prebenitzeko Europako Astea dela eta, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak, Real Sociedad Fundazioarekin lankidetzan, plogging lasterketa bat antolatu zuen Andoainen (lasterketa mota horretan, abandonaturik utzitako zaborra biltzen da). - MERKATARITZA GUNEETAN BIGARREN ESKUKO ARROPA BERRERABIL DADIN SUSTATZEA. Hondakinak Prebenitzeko Europako Astearen barruan, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak hondakinen sorrera murrizteko kontzientziazio eta sentsibilizazio jarduerak antolatu zituen. Jarduera horietako bat izan zen bigarren eskuko arropen berrerabilera sustatzea merkataritza guneetan, eta Garbera merkataritza gunean egin zen; EMAUS Fundazioaren laguntza izan zuen, espazioa antolatu, prestatu eta girotzeko.

		Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 121.226 €
BEHATOKIA-9	Zenbait udalerrik egindako esperientzia arrakastatsuak behatokiaren bidez identifikatzea eta zabaltzea. Bilketako jardunbide onenak zabaltzea.	Aurrerapen maila  0 €
BEHATOKIA-9.1	Informazioa eta esperientziak trukatzeko bilerak egitea	· 2021ean, zenbait bilera egin dira Gipuzkoako Hondakinen Behatokiaren bidez, udalerri batzuek hondakinen prebentzioaren, berrerabileraren, bilketaren eta kudeaketaren arloan egindako esperientzia arrakastatsuak trukatzeko eta partekatzeko. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*

5.2.2 Prebentzio programa

Programa horrek 22 jarduera biltzen ditu guztira, eta 2021ean horietatik 19 gauzatzea zegoen aurreikusita. Horretaz gainera, zenbait jarduketa gehiago ere egin dira aurreikusi gabe zegoen ekintza batean (PREBENTZIOA-20).

Programaren aurrerapen-maila, 2021ean gauzatu beharreko jarduketen kopuruari eta gauzatze mailari erreparatuta, % 80koa da.

 	**PREBENTZIO PROGRAMA**	
PREBENTZIOA-1	Hondakinak sortzeagatik ordainketa politikak bultzatzea, herritarrei eta merkataritza eta industria sektoreei zuzenduta.	Aurrerapen maila  0 €
· Ez da ekintzarik egin puntu honi dagokionez.		
PREBENTZIOA-2	Gipuzkoako moda jasangarriko klusterra sustatzea (GK Green Fashion): jasangarritasun irizpideetan sakontzea, katalogoa zabaltzea diseinatzaile eta enpresa gipuzkoar gehiagorekin; I+G+Bko ekintza pilotuak bultzatzea, sustatzeko eta ikusarazteko ekintzak (Moda Jasangarriaren Desfilea, tokiko marka berriak garatzeko espazioak, etab.); kontsumo arduratsuko tresnak eta abar nazioartekotzea eta zabaltzea, beste kluster eta	Aurrerapen maila  156.588 €

	eragile batzuekin lankidetzan (Gipuzkoa de Moda, Slow Fashion Next...).	
PREBENTZIOA-2.1	GK Trace azterlana egitea	· Moda jasangarriari buruzko azterlan bat idaztea, GK Recycling klusterrean oinarritua. Helburua datu base bat sortzea eta ustiatzea izan da, moda jasangarriko enpresei, haien produktuei, jarduera horretan bereizten dituzten gaiei eta abarri buruzko informazioarekin. Egiaztapen edo etiketatze jarduera jasangarri baterako oinarriak ezartzea zen xedea. Azterlanak garapen informatiko bat ere biltzen du. · Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[7]
PREBENTZIOA-2.2	Ikastetxeentzako Slow Fashion hezkuntza programa	· Cristóbal Balenciaga Fundazioak prebentzio kanpaina bat garatu zuen, ikasleen artean moda kultura eta kontsumo arduratsua eragiteko eta auzi horren gaineko sentsibilizazio eta heziketa lana egiteko. Ekintza horretarako, Slow Fashion hezkuntza programa zabaldu zen Gipuzkoako ikastetxeetan. Hauek izan ziren programaren helburuak: modaren sektoreko jasangarritasunarekin lotutako balioetan sentsibilizatzea eta etorkizuneko kontsumitzaile gisa irizpidea eratzen laguntzea, ikasleek ikasgelatik kanpo jarduerak egiteko aukera eskaintzea eta Cristóbal Balenciagaren sormenaren kultura ondarea balioets dadin bultzatzea. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 18.150 €*
PREBENTZIOA-2.3	3DEZ proiektua: ekonomia zirkularrari aplikatutako 3D teknologia	· GK trace AEG eskolak abiarazitako ekimen bat da. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak bat egin zuen ekimenarekin, eta Slow Fashion Nextek eta Balab Factoryk ere parte hartu zuten. Ehungintza industriari trazabilitatea eta gardentasuna emateko sorturiko ekimen bat da, eta, hala, kontsumitzailearen konfiantza irabazi nahi du. Esparru horretan, 3DEZ proiektua sortu zen, zeinaren bidez AEG zentroak 400 orduko espezializazio ikastaro bat eman baitzuen aurrez aurreko modalitatean. Saio hartan,

[7] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

		espezializazio bat proposatu zuen bi eskola ikasturteko prestakuntza ziklo bat egin ondoren, enpresetan egin beharreko nahitaezko praktikak barnean harturik. · Proiektu haren bidez, egitasmo berezi bat bultzatu nahi izan da ekonomia zirkularraren arloan gizartean eta lan munduan txertatzeko zailtasunak dituzten pertsonei zuzendurik 2021ean, dela lana topatzen laguntzeko, dela enpleguari eusten laguntzeko. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 5.324 €*
PREBENTZIOA-2.4	«Moda jasangarria: orain da unea» jardunaldia	· Ingurumen Departamentuak «Moda jasangarria: orain da unea» izeneko jardunaldia egitea erabaki zuen, modaren munduak (ehungintzak eta osagarriek) ingurumenean duen inpaktuari buruzko kontzientzia sortzeko herritarren artean, eta arlo horretan eragiteko eta hezteko. Jardunaldia 2021eko maiatzaren 13an izan zen, eta Gema Gómez de Pabloren zerbitzuak kontratatu zituen antolaketa lanetarako. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 1.755 €*
PREBENTZIOA-2.5	«GK Green Fashion: Moda Jasangarriaren Gipuzkoako Klusterrak larrialdi klimatikoari erantzuten dio» izeneko jardunaldia	· 2021eko urriaren 21ean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak moda jasangarriari buruzko jardunaldi bat antolatu zuen: «GK Green Fashion: Moda Jasangarriaren Gipuzkoako Klusterrak larrialdi klimatikoari erantzuten dio». Bertan, aurrez aurreko hitzaldiak eskaini ziren, nazioarteko eta estatuko lehen mailako parte hartzaileen eskutik, eta online ere zabaldu ziren parte hartze haiek. Jardunaldia moda sustatzeko eta zabaltzeko San Sebastián Moda Festival plataformaren bidez zabaldu zen, eta, haren bidez, marketin, publizitate eta hedapen ekintzak garatu ziren, Diario Vasco taldearen euskarri inprimatu eta telematikoetan. Gema Gómez de Pabloren laguntza izan zen jardunaldia antolatzeko eta moderatzeko, eta bertan Gipuzkoan garatutako eta Gipuzkoako Foru Aldundiak berak sustatutako jarduera ugari azaldu ziren, hala nola Alianza Slow Fashion proiektua. Bestalde, Javier Plazas luxuaren eta transformazio digitalaren sektorean espezializatutako joeren analistak *Sustainable Luxury* izeneko lan tailerra eskaini zien klusterreko parte diren markei.

		Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 17.444 €
PREBENTZIOA-2.6	GK Green Fashion klusterrak Be Veggie! azokan parte hartu zuen	· Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak erabaki zuen GK Green Fashion moda jasangarriaren klusterraren partaidetza babestea Be Veggie! izeneko azokan, modaren munduak (ehungintzak eta osagarriek) ingurumenean duen inpaktuari buruzko kontzientzia sortzeko herritarren artean, eta, orobat, arlo horretan eragiteko eta hezteko. FICOBA fundazioak antolatu zuen azoka hura, 2021eko abenduaren 4an, 5ean eta 6an. Babesletza proposamenak 48 m^2-ko erakusleku bat bildu zuen, produktuak saltzeko eta erakusteko, eta, horretaz gainera, gonbidapenak eta komunikazio eta hedapen ekintza batzuk ere izan zituen. Aurrekontuaren barruan daude erakuslekua egokitzeko, antolatzeko eta seinaleztatzeko lanak. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 24.133 €*
PREBENTZIOA-2.7	«Gipuzkoako populazioaren moda kontsumoaren ohiturak»	· Txosten batean idatzita jaso ziren moda kontsumoaren gaineko ikerketa batean lorturiko emaitzak. Haren helburua izan da errotik aztertzea Gipuzkoako biztanleek moda kontsumoarekin loturik dituzten ohiturak, kontsumo ohitura horiek ingurumenean eta gizartean duten eraginari buruzko ezagutza maila areagotzea, Slow Fashion edo moda jasangarriaren alternatiba, eta hura hobeto ezagutzeko joera. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 17.182 €*
PREBENTZIOA-2.8	«Modaren sektorea: nazioarteko ikuspegi bat» txostena idaztea	· Azterlan bat egin da, eduki hauek abiapuntu harturik: - Ehungintzarekin edota modarekin lotutako tokiko, eskualdeko, estatuko eta nazioarteko informazioaren testuinguru esparrua. Zuzeneko eta zeharkako eragileak mapatzea, pandemiaren ondoren produkzioan eta kontsumoan izandako aldaketak identifikatuta. - Jasangarritasunari eta ekonomia zirkularrari buruzko politika, legeria eta araudietako erreferentzia esparrua. - Ehungintzaren edota modaren sektoreko berrikuntzaren, joeren eta garapen teknologikoaren erreferentzia esparrua, estatuan eta Europan.

		- Galdetegi bat diseinatzea eta egitea, klusterreko kideen ingurumen eta gizarte dimentsioari buruzko datuak jaso ahal izateko. Urriaren 21ean egindako jardunaldi batean aurkeztu zen aipaturiko txostena. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 18.150 €*
PREBENTZIOA-2.9	«Modaren eta ehungintzaren sektorea Espainian: berrikuntza, prestakuntza, legeria eta beste gai batzuk»	· Espainiako ehungintzaren eta modaren sektorearen analisi txostena egin zen, autonomia erkidegoen arabera sailkaturik, arlo hauek aztergai harturik: ikerketa, teknologia, goi mailako hezkuntza eta sektoreko enpresak. Urriaren 21ean eginiko jardunaldi batean aurkeztu zen aipaturiko txostena. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 18.150 €*
PREBENTZIOA-2.10	GK Green Fashionerako jasangarritasun irizpideak definitzea, Garapen Jasangarriko Helburuak oinarri gisa harturik.	· GK Green Fashionerako jasangarritasun irizpideak identifikatzeko, aztertzeko eta proposatzeko lana, Garapen Jasangarriko Helburuak oinarri harturik. Urriaren 21ean eginiko jardunaldi batean azaldu zitzaien azterketa klusterreko enpresei. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 18.150 €*
PREBENTZIOA-2.11	Ehungintzaren eta modaren sektorearen azterketa Espainian.	· Ingurumen Departamentuak eta GK Green Fashion klusterrak, Alianza Slow Fashion proiektua garatzea xede harturik, Gema Gómez de Pabloren zerbitzuak kontratatu zituzten proiektu honen 2. etapari dagozkion zeregin hauetarako: - Lan saioen kontzeptualizazioa eta diseinua. - Herritarrentzako inkesta eta emaitzen azterketa. - Zeharkako eragileen azterketa, parte hartzaileak identifikatzea eta inkesta. - Txostena egitea. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 18.150 €*
PREBENTZIOA-3	Etxeetan eta merkataritzan kontsumo arduratsua sustatzea, tokiko produktua, konponketa, trukea eta bigarren eskuko produktuak sustatuz.	Aurrerapen maila  0 €

· Tankera horretako jarduerak EMAUS Gizarte Fundazioarekin sinatutako hitzarmenaren jarduera esparruan garatzen dira (BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-1.2 ekintzan deskribatuta). Horretaz gainera, jarraian deskribatutako ekintza ere gauzatu zen.		
PREBENTZIOA-3.1	Irungo merkataritzan hiri hondakinak prebenitzeko azterlana. Ekoretail zirkularra	· MUGAN Irungo ostalaritza eta zerbitzuen merkataritza elkarteak garatu zuen ekimen hori, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntzen deialdiaren esparruan. Hain justu ere, ekonomia zirkularra da haren ildoetako bat. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 10.066 €*
PREBENTZIOA-4	Gipuzkoako Foru Aldundian erosketa berde eta zirkularraren programa bultzatzea, berrerabilitako eta birziklatutako produktuak eta materialak sar daitezen: produktuak, zerbitzuak, obrak eta instalazioak.	Aurrerapen maila  84.700 €
PREBENTZIOA-4.1	Gipuzkoa % 100 zirkularra proiektu esperimentala, Etorkizuna Eraikiz ekimenaren barruan.	· 2020an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak Green Recovery Gipuzkoa *think tank*a aktibatu zuen, egungo osasun eta ekonomia krisia berreskuratzea Gipuzkoarako gizarte, ekonomia eta ingurumen eraldaketa bihurtzeko, eta lurraldea ekonomia berdeko eredu batekin kokatzeko, enplegua eta aberastasuna sortuko dituena eta klima aldaketaren aurkako borrokan jarraitzea ahalbidetuko duena. · 2021ean, eragileekin bilerak egiten jarraitu da, eta erosketa zirkularra eta berrikuntza sustatzeko ekintzak ere gauzatu dira, erreminta estrategikotzat jotzen baitira Gipuzkoako ingurumen helburuak lortzeko eta tokiko enpresa berrikuntza sustatzeko, guztia ere lurraldearen jasangarritasun erronkei erantzutea xede gisa harturik. Zehazki, jardun eremu hauetan lan egin da: erosketa berde eta zirkularrean talde sustatzaile bat aktibatzea, erosketa berde eta zirkularrerako baliabide sistema bat sortzea, eta, orobat, kontsumitzaile txikiarekin aliantzak sortzea. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 84.700 €*
PREBENTZIOA-5	Ekodiseinua bultzatzea	Aurrerapen maila  0 €

· Ekodiseinua zenbait dirulaguntza proiekturen bidez landu da 2021ean; esate baterako, Ekonomia Zirkularraren azken Kongresuan landu zen auzi hori, eta GK Recycling klusterrak eginiko jardunaldietan ere aztertu eta eztabaidatu zen.		
PREBENTZIOA-6	Gipuzkoako Foru Aldundiaren eraikin publikoetan ingurumena kudeatzeko sistemak bultzatzea: sortutako hondakinak minimizatzea eta kudeatzea	Aurrerapen maila  19.675 €
PREBENTZIOA-6.1	Gipuzkoako Foru Aldundiaren eraikinetako hondakinen kudeaketari eta sistemei buruzko azterlana.	· Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2030erako Plan Orokorrak ekintza plan bat planteatzen du, hiri hondakinen kudeaketaren arloan ingurumen helburu batzuk lortzeko. Plan horretan 2021erako programatuta zeuden prebentzio neurrien artean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eraikin publikoetako ingurumen kudeaketako sistemak aztertzen jarraitzea ageri zen (2. fasea). Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eraikinetako hondakinen kudeaketa (bereizketa) eta sistemak aztertu dira, eta, ondoren, zenbait neurri proposatu dira horiek murrizteko eta ingurumena gehiago errespetatuz kudeatzeko. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 17.932 €*	
PREBENTZIOA-6.2	Hondakin frakzioa karakterizatzeko zerbitzuak ematea	· Gipuzkoako Foru Aldundiaren Donostiako Gipuzkoa Plazako eraikineko bulegoetan sortutako hondar frakzioko poltsen karakterizazioa egitea. Poltsen barruan aurkitutako hondakinak aztertu ondoren, karakterizazio fitxa bat egin zen, eta, bertan, berariaz prestatutako beste edukiontzietan utzi behar ziren hondakin desegokien gaineko emaitzak nabarmendu ziren. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 1.742 €*	
PREBENTZIOA-7	Mankomunitate, udal, enpresa eta irabazi asmorik gabeko elkarteentzako prebentzio, gaikako bilketa, berrerabiltzeko prestakuntza eta birziklapenaren arloetako laguntzen foru programari eustea (elkarrekiko norgehiagokako dirulaguntzak eta lankidetza hitzarmen izendunak).	Aurrerapen maila  875.000 €
PREBENTZIOA-7.1	Dirulaguntzen deialdia (laguntzen foru programa).	· Ingurumen Departamentuak urtero ematen dituen dirulaguntzen deialdia. Ildo horietako bat ekonomia zirkularrekoa da. Ingurumen Departamentuak arlo horretan duen dirulaguntza lerro bakarra da, eta udalei, mankomunitateei,

		enpresei eta irabazi asmorik gabeko elkarteei zuzendua da. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 875.000 €*
PREBENTZIOA-8	Gazteentzako I+G+Bko beken foru programari eustea: prebentzioa, produktu eta zerbitzuen ekodiseinua, berrerabiltzeko prestatzea, gaikako bilketa, birziklatzea eta balorizazioa.	Aurrerapen maila  60.000 €
PREBENTZIOA-8.1	Ekonomia zirkularreko bekak.	· Beka deialdia, arlo hauetako ikerketa eta berrikuntza proiektuak egiteko: hondakinak prebenitzea eta birziklatzea, jasangarritasun energetikoa, klima aldaketa arintzea eta/edo hartara egokitzea, eta klima aldaketari buruzko informazioa eta komunikazioa. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 60.000 €*
PREBENTZIOA-9	Azken Minutua programa indartzea Gipuzkoako Elikagai Bankuaren (GEB) bidez: emaileen kopurua handitzea eta aprobetxatzeko formula berriak.	Aurrerapen maila  200.000 €
PREBENTZIOA-9.1	Elikagaien Bankuarekiko hitzarmena, 2021. urtea.	· Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentua 2007an hasi zen Gipuzkoako Elikagaien Bankuarekin merkaturatu ezin diren elikagai kontsumigarriak biltzen. Azken urteotan, Elikagaien Bankuak egindako lan handiaren ondorioz, egiaztatu da beharrezkoa dela erakunde horrekin lankidetzan jarraitzea. Hori dela eta, berritu egin da bien arteko lankidetza hitzarmena, alde batetik, Azken Minutua programako elikagaien bilketa, biltegiratzea eta banaketa finantzatzeko, eta, bestetik, Gipuzkoa osoan egungo sarea mantentzeko beharrezkoak diren baliabide materialak eta giza baliabideak eskaini ahal izateko Elikagaien Bankuari. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 200.000 €*
PREBENTZIOA-10	Herritarren sentsibilizaziorako kanpainak: etxean eta jatetxeetan xahutzea prebenitzea (Gourmet Bag).	Aurrerapen maila  42.756 €
PREBENTZIOA-10.1	«Hondakinik gabeko ikastetxeak. Gipuzkoa	· Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak Enraíza Derechos

	Planeta iraunkor baten alde» proiektua garatzea.	erakundearen zerbitzuak kontratatu zituen, interesaturik zeuden ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 3., 4. eta 5. mailetako ikasleei jardunaldiak emateko, elikagaiak xahutzearen inguruko sentsibilizazioari eta kontzientziazioari buruz. Garatutako proiektuaren helburua izan zen ikasleak eta irakasleak elikagaiak alferrik xahutzearen arazoari buruz sentsibilizatzea eta kontsumo jasangarrirako jarraibideak sustatzea, 2030 Agendaren helburuekin bat etorriz. Horretarako, unitate didaktiko bat garatu eta proiektuan interesa zuten ikastetxeei eman zitzaien. Harekin batera banatu zituzten, besteak beste, ikasgelan lantzeko aurkezpenak, jokoak, hezkuntza baliabideak eta informazio osagarria. Guztia ere hizkuntza erraz eta ulergarrian eman zen, Lehen Hezkuntzan landu ahal izateko, eta, orobat, ikasle haiek jasangarritasun, elikagai hondakin eta halako kontzeptuekin ohitu zitezen hainbat materialen bidez. · Enraíza Derechos elkarteak eginiko lanari esker, orotara 66 tailer eman ziren eta 1.500 pertsona baino gehiagorengana iritsi zen hezkuntza komunitatearen barruan. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 15.246 €*
PREBENTZIOA-10.2	Sukaldaritzaren alorrean ekonomia zirkularra aktibatzeko gida bat egitea.	· Ekonomia zirkularreko gida bat sortu zen hotelen, jatetxeen eta kafetegien sektoreko establezimenduetarako, elikagaiak xahutzeko eta ekoeraginkortasunerako neurriak oinarri harturik. Gida hura egiteko, zenbait ikerketa eta azterlan egin dira establezimenduetan eta hornitzaileekin, Gipuzkoan elikadura eta ekonomia zirkularraren arloan jardunbide egokiak gauzatzeko. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[8]
PREBENTZIOA-10.3	Elikagaien xahutzearen diagnostikoa egitea eta sentsibilizazio kanpaina bat garatzea Urola Kostako Udal Elkartean.	· Urola Kostako Udal Elkarteak garatutako ekintza, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntzen deialdiaren esparruan. Haren ildoetako bat, hain zuzen ere, ekonomia zirkularra da.

[8] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

		Aurreratze maila: % 100 *Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[9]
PREBENTZIOA-10.4	Argazki lan bat egitea Gabonetako errezeten liburu bat argitaratzeko.	· Gabonetako kanpainari begira, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Elikagaien Bankuak argazki lan bat kontratatu zuten Gabonetako errezeten liburu bat prestatzeko. *Aurreratze maila: % 100* *Gauzatutako aurrekontua: 3.360 €*
PREBENTZIOA-10.5	Gourmet Bag 3.0	· Impact Hub Donostia gizarte berrikuntzako laborategi bat da, nazioarteko proiekzioa duena, eta, bertan, erakundeek, pertsonek, instituzioek eta komunitateak lankidetzan jarduten dute produktuen, zerbitzuen eta ereduen ikuspegi berritzaileak garatzen. 2018an Gourmet Bag ekimena sortu zen: ontziak ipintzen dituzte jatetxeetan otorduak egiten dituzten pertsonen eskura, soberan dauden errazioak etxera eraman ahal izateko. · 2021ean, Gourmet Bag 3.0 ekimena gauzatu zen, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko beste bost udalerritara zabaldu zen: haietan, 2.000 ontzi banatu ziren eta bost ostalaritza establezimenduk ekimenarekin bat egitea lortu zen. Horretaz gainera, jarduera honekin herritarrak elikadura xahutzearen aurrean sentsibilizatzen jarraitzen da. · Bestalde, Gourmet Bag 2021 aurkezpenaren kartelen diseinua, onlineko formularioaren maketazioa eta diseinua, eta Gourmet Bag maparen diseinua ere landu ziren. *Aurreratze maila: % 100* *Gauzatutako aurrekontua: 18.690 €*
PREBENTZIOA-10.6	Dokumentuak itzultzeko zerbitzuak.	· Honako dokumentu hauek euskaratzea: «Enraíza 2020 amaierako txostena» eta «PROSALUS 2019 amaierako txostena». *Aurreratze maila: % 100* *Gauzatutako aurrekontua: 5.161 €*
PREBENTZIOA-11	Ostalaritzaren, jatetxeen, catering zerbitzuen eta bestelako sortzaile batzuen sektoretik datozen elikagaien soberakinak biltzeko eta banatzeko sare bat bultzatzea. Sare hori gizarte laguntzako zentroetara zabaltzea.	Aurrerapen maila  18.000 €

[9] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

PREBENTZIOA-11.1	«Laguntzeko berreskuratzea» proiektua garatzea	· Elikagai gutxiago alferrik xahutzea helburu duen proiektua. Egitasmo honen bidez, merkaturatu ezin diren elikagaien soberakinak premia duten pertsonei emateko aprobetxatzen dira. Elikagaien bankuek egiten dutenaren antzeko ekintza bat da, baina neurri txikiagokoa eta talde marjinaletara bideratuagoa. · Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[10]
PREBENTZIOA-11.2	Xahutzearen ezaugarriak zehazteko garapen metodologikoa.	· Elikagaiak xahutzearen ezaugarriak lortzeko garapen metodologikoaren jarraipena egitea. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 18.000 €*
PREBENTZIOA-13	Prebentzioko eta gaikako bilketako irizpideak sartzea eta zabaltzea sukaldaritzako hezkuntza guneetan: sortutako azpiproduktuak eta gastronomia sorkuntzan egindako ikerketak, azpiproduktuak berrerabilita.	Aurrerapen maila  36.300 €
PREBENTZIOA-13.1	Hitzarmena Basque Culinary Centerrekin.	· Basque Culinary Centerrek (BCC), gastronomiaren arloan duen zentro teknologiko sektorialaren bitartez, aprobetxatu nahi du Donostia eta Gipuzkoa gastronomiaren nazioarteko erreferentzia direla, elikadura sistemaren zirkulartasunerako trantsizioa bultzatzeko. 2019an, bi erakunde horien arteko lehen lankidetza hitzarmena sinatu zen, eta 2020an berritu egin zen. Hitzarmen haren bidez, etxeetan elikagaiak xahutzearen inguruko sentsibilizazioa landu zen Erresistentzia Gastronomikoa izeneko egitasmoaren bidez. 2021erako sinatutako hitzarmenari esker, BCCk «Iurraldeko arketipoaren azterketa» izeneko proiektua garatu ahal izan du, zeina «2021-2023 ibilbide-orriko» proiektuen proposamen-planean baitago jasota. Proiektu horri esker, 2020an garatutako proiektuaren ildoari jarraitu zaio, baina oraingoan areagotu egin da fokua eta kontuan hartu dira elikadura katearen beste maila garrantzitsu batzuk ere.

[10] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

		Ekintza horien bidez, soluzio berritzaileak eta sormenezkoak bilatu nahi dira elikagaien industrian sortzen diren baterako produktuentzat, Gipuzkoan elikadura sistemak nola funtzionatzen duen ezagutu eta kuantifikatu nahi da, eta gizartea sentsibilizatu eta kontzientziatu nahi da elikadura baliabideen jasangarritasuna lortzearen garrantziaz, betiere gure lurraldeko elikadura sektorearen zirkulartasuna lortzeko ekintzak identifikatzeko. Basque Culinary Centerrek Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera lan egin du jasangarritasunari buruzko nazioarteko proiekzioa duen jardunaldi batean. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 36.300 €*
PREBENTZIOA-14	Herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak egitea, ontzi hondakin gutxiago sortzeko erosketa jardunbide egokiak sustatzeko: erosketarako ontzi berrerabilgarriak, ontziratu gabeko produktuak, plastikozko poltsak, ontzi motak eta birziklagarritasuna, etab.	Aurrerapen maila  2.396 €
PREBENTZIOA-14.1	«Zero Plastiko Donostia» sentsibilizazio kanpainaren garapena.	· Sentsibilizazio kanpaina horren xedea da Donostiako herritarrak inplikatzea eta plastikozko ontzien eta poltsen gehiegizko erabilera murrizteko beharraz kontzientziatzea; izan ere, askotan bide publikoan edo hondartzetan uzten dira, eta, ondorioz, kutsatu egiten da itsasoa. Horrek kalte garbia egiten dio kate trofikoari, eta, horrenbestez, itsas ekosistemei eta pertsonen osasunari ere bai. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[11]
PREBENTZIOA-14.2	«Plastikorik ez Urola Garaiko fruta dendetan» proiektua abian jartzea	· Poltsa berrerabilgarriak erostea. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 2.396 €*

[11] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

PREBENTZIOA-15	Txorrotako uraren kontsumoa sustatzea herritarren artean, oro har.	Aurrerapen maila  0 €
· Dagoeneko legezko betebeharra da, eta, beraz, amaitutzat ematen da ekintza hori.		
PREBENTZIOA-16	Itzuli daitezkeen botilen erabilera sustatzea uraren, sagardoaren eta ontziratutako ardoaren sektoreetan.	Aurrerapen maila 0 €
· Ez da ekintzarik egin puntu honi dagokionez.		
PREBENTZIOA-17	Salmentarako jardunbide egokiak sustatzea, merkataritza sektorean ontzi hondakin gutxiago sortzeko.	Aurrerapen maila  0 €
PREBENTZIOA-17.1	Merkataritzaren sektorean hondakinak ahalik eta gehin gutxitzeko eta prebenitzeko azterketa, ekonomia zirkularraren esparruan	· DENDARTEAN elkarteak garatutako ekintza Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntzen deialdiaren esparruan. Haren ildoetako bat ekonomia zirkularra da. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[12]
PREBENTZIOA-17.2	«IMU» plana	· Ostalaritza sektorean hondakinen sorrera murrizteko plan sektorial bat garatzea. Era berean, birziklatzeko ekintzak ere biltzen ditu. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[13]
PREBENTZIOA-18	Herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak sustatzea, etxeko hondakin arriskutsuak prebenitzeko.	Aurrerapen maila  0 €

[12] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua
[13] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

· 2021ean, herritarrak sentsibilizatzeko zenbait kanpaina egin dira etxeko hondakin arriskutsuak prebenitzearen alorrean, eta, horretarako, dirulaguntzak eman zaizkie mankomunitateei eta udalei, garbiguneak egokitzeko eta hobetzeko.		
PREBENTZIOA-20	Sakabanatutako zaborra prebenitzea eta murriztea: sakabanatutako zaborraren jatorri fokuak aztertzea, ibaietan, hondartzetan eta itsasoan zaborra prebenitzeko eta murrizteko neurriak definitzea eta garatzea, eta herritarrak sentsibilizatzeko neurriak hartzea.	Aurrerapen maila 100% *202.280 €*
PREBENTZIOA-20.1	Zabor barreiatura bideratutako dirulaguntzak.	· Zabor barreiatua murriztera bideratutako dirulaguntzen ildo espezifikoan, hauek dira Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundu dituen proiektuak: - Alegiako naturaguneak garbitzea. - Urola ibaia garbitzea eta zaborrak ibaira ez botatzeko sareak ipintzea. - Arroa errekaren eremua txukuntzea. - Ziako-Martin Ugalde industrialdeko zaborrak garbitzea. - Barreiaturiko hiri hondakinen bilketa eta naturaguneak kontserbatzea. - Anoetako erreka eta ibaien garbiketa sistematizatzea. - Beasaingo Agauntza, Estanda eta Oria ibaietako zaborrak garbitzea. - Amasa mendiko obra hondakinen pilaketa garbitzea. - Oria, Amundarain eta Mariarats ibaien garbiketa Ordiziako eremuan. - Barandak egokitzea, hondakinak ibaiaren ibilgura ez erortzeko. - Oñatiko erreketan zaborrak ez isurtzeko proiektuaren I. fasea. - Barandetan zokaloak ipintzea, Deba ibaira hondakinak haizeagatik ez erortzeko. - Villabonan sakabanatuta dauden hondakinak biltzeko proiektua. - Ordiziako barandaren beheko aldean babesak ipintzea. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 72.811 €*
PREBENTZIOA-20.2	SeaBin 2021	· Proiektu horren bidez, uretan dagoen zikinkeria jasotzen duen gailu bat baliatzen da, itsasoak garbitzeari heltzeko. 2020an diruz lagundutako proiektu baten jarraipena da. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 16.940 €*

PREBENTZIOA-20.3	Plastifisharen kostera	· Eskola umeak itsas zaborren arazoari buruz sentsibilizatzeko kanpaina. Barnean hartzen du kala bat bisitatzeko irteera. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 18.150 €*
PREBENTZIOA-20.4	Zabor barreiatuak erretiratzea	· 2021ean, ibai ibilguetan barreiaturiko zaborra bildu da. 2020an, kostaldetik erretiratu ziren zaborrak. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 90.750 €*
PREBENTZIOA-20.5	BIRIBIL| Ekonomia Zirkularra eta Itsas Zaborrak	· Kostaldean eta itsasotik gertu bildutako zenbait itsas zabor aprobetxatzeko ekintza. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 3.629 €*
PREBENTZIOA-21	Etxekoak ez diren sorgailuak murriztu, berrerabili eta birziklatzeari buruzko esperientzia pilotuak egitea (borondatezko akordioak eragile ekonomikoekin) Birziklatze Klusterraren esparruan.	Aurrerapen maila 0 €
· Ez da ekintzarik egin puntu honi dagokionez.		
PREBENTZIOA-22	Birziklatutako eta berrerabilitako produktuak bultzatzea, eta, horretarako, obra eta zerbitzuen kontratu publikoetan nahitaezko ehuneko bat ipintzea.	Aurrerapen maila  0 €
· «Gipuzkoa % 100 zirkularra» proiektu esperimentalaren barruan, Etorkizuna Eraikiz ekimenari atxikirik, birziklatutako eta berrerabilitako produktuen sarrera bultzatzen ari dira, besteak beste.		

5.2.3 Kudeaketa programa

5.2.3.1 Gaikako bilketarako programa

Programa horrek 4 jarduera biltzen ditu guztira, eta 2021ean horietatik 2 gauzatzea zegoen aurreikusita. Hala ere, aurreikusi gabeko ekintza bat egiteari ere heldu zitzaion, GAIKAKO BILKETA-1.
Programaren aurrerapen maila % 100ekoa da, jarduera kopuruaren eta gauzatze mailaren arabera.

	**GAIKAKO BILKETARAKO PROGRAMA**	
GAIKAKO BILKETA-1	Mankomunitateei laguntzea hondakinen gaikako bilketarako eredu eta sistema oso eraginkorrak eta jasangarriak bultzatzen eta etengabe hobetzen, eta, horretarako, neurri hauek sustatzea: ereduen eta sistemen azterketa bateratua, lurralde mailako irizpideen koordinazioa, erabiltzaileen ikuspegiaren azterketa eta integrazioa (genero irizpideak barne), sistema adimendunak txertatzea eta emaitzen ebaluazioa.	Aurrerapen maila  25.280 €
GAIKAKO BILKETA-1.1	Sentsorikako ekipamenduak instalatzea edukiontzietan.	· 2021ean, Donostiako hondakin frakzioetarako edukiontziak betetzeko sentsorizazio esperientzia pilotuarekin jarraitu zen. Orotara, 65 sentsorika ekipamendu ipini ziren edukiontzi adimendunekin, eta, horretaz gainera, komunikazio txartelak eman ziren eta datuak ustiatzeko plataforma egokitu zen. *Aurreratze maila: % 100* *Gauzatutako aurrekontua: 10.116 €*
GAIKAKO BILKETA-1.2	Trinkotzeko makina bat instalatzea.	· Solbes Gourmet elkarteak garatutako ekintza Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntzen deialdiaren esparruan. Haren ildoetako bat ekonomia zirkularra da. *Aurreratze maila: % 100* *Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[14]
GAIKAKO BILKETA-1.3	Mutiloan belarra eta adarrak biltegiratzeko eta birrintzeko bi leku prestatzea.	· Mutiloako Udalak garatutako ekintza, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntzen deialdiaren esparruan, zeinaren ildoetako bat ekonomia zirkularra baita. *Aurreratze maila: % 100* *Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[15]
GAIKAKO BILKETA-1.4	Donostiako sentsorika unitateekin izandako esperientziaren gaineko azken txostena idaztea.	· 2021eko maiatzean errefus frakzioko edukiontzietan betetze sentsoreak instalatu ondoren, esperientzia horren azken txostena idatzi zen, eta, era berean, hori posible egiteko prestaketa lan teknikoak dokumentatu ziren: betetze erregistroen berrikuspena, gorabeheren analisia eta beharrezko beste lan tekniko batzuk. *Aurreratze maila: % 100* *Gauzatutako aurrekontua: 15.164 €*

[14] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua
[15] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

GAIKAKO BILKETA-1.5	Errefusaren frakzioa murrizteko proiektua eta Debabarreneko industrialdeetako hiri hondakinen tankerakoak diren industria, merkataritza eta erakundeetako hondakinen gaikako bilketa areagotzeko ekintzak.	· Ekintzaren helburua da hiri hondakinen tankerakoak diren industria, merkataritza eta erakundeetako hondakinen frakzioa murriztea. Horretarako, paperaren eta kartoiaren edukiontzian utzitako hondakin desegokiak murriztea sustatzen da, bai eta zuraren edukiontzietan utzitakoak ere, industrialdeetan. Era berean, industrialdeetan hiri hondakinen tankerakoak ez diren industria, merkataritza eta erakundeetako hondakinak murriztea bilatu da errefus frakzioaren edukiontzian (gehienak industria hondakinak eta/edo arriskutsuak), eta, horretarako, zura eta papera/kartoia biltzen dituzten enpresen inplikazioa bilatu da. Azkenik, gaikako beste bilketaren bat egiteko aukera ere aztertu zen (film industriala). · Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori. *Aurreratze maila: % 100* *Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[16]
GAIKAKO BILKETA-1.6	Ontziak biltzea sortzaile handietan.	· Txingudiko Zerbitzuak garatutako ekintza, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntzen deialdiaren esparruan, zeinaren ildoetako bat ekonomia zirkularra baita. *Aurreratze maila: % 100* *Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[17]
GAIKAKO BILKETA-2	Mankomunitateekin batera, garbiguneen egokitzapena eta hondakinen korronte guztietarako administrazio irizpideen homogeneizazioa sustatzea eta haien erabilera bultzatzea –barnean harturik fibrozementu estrukturala, obra txikietako hondakinak eta gainerako etxeko hondakin arriskutsuak–, baita kopuru jakin batzuetatik aurrera kobratzeko aukera aurreikustea ere.	Aurrerapen maila  0 €
GAIKAKO BILKETA-2.1	Garbigunea egokitzea Segurako baserri eremuetako hondakinak kudeatzeko.	· Segurako Udalak garatutako ekintza, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntzen deialdiaren esparruan, zeinaren ildoetako bat ekonomia zirkularra baita. *Aurreratze maila: % 100* *Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[18]
GAIKAKO BILKETA-2.2	Minigarbiguneak jartzea Pasaian.	· Pasaiako Udalak garatutako ekintza, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten

[16] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua
[17] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua
[18] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

		duen dirulaguntzen deialdiaren esparruan, zeinaren ildoetako bat ekonomia zirkularra baita. *Aurreratze maila: % 100* *Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[19]
GAIKAKO BILKETA-2.3	Andoaingo garbiguneak egokitzeko lanak.	· Tolosaldeko Mankomunitateak garatutako ekintza Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntzen deialdiaren esparruan. Horren ildoetako bat ekonomia zirkularra da. *Aurreratze maila: % 100* *Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[20]
GAIKAKO BILKETA-2.4	Urola Kostako Udal Elkarteko hiru garbiguneak egokitzeko proiektua.	· Urola Kostako Udal Elkarteak garatutako ekintza, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntzen deialdiaren esparruan. Haren ildoetako bat, hain zuzen ere, ekonomia zirkularra da. *Aurreratze maila: % 100* *Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[21]
GAIKAKO BILKETA-4	Informazio eta sentsibilizazio kanpainak egitea.	Aurrerapen maila  0 €
GAIKAKO BILKETA-4.1	#GEROA2030 proiektua - Ikastola jasangarrigoa / Colegio más sostenible	· Ikastetxeetan gaikako bilketa sustatzeko proiektua, eta hura errazten duten elementuak eskuratzea (hondakinak bereizteko ontziak eta abar). Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori. *Aurreratze maila: % 100* *Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[22]

5.2.3.2 Berrerabiltzeko prestatzeko programa

Programa horrek 5 jarduera biltzen ditu guztira, eta 2021ean horietatik 3 gauzatzea zegoen aurreikusita. Hala ere, aurreikusi gabeko bi ekintza ere egin ziren: BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-2 eta BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-4.
Programaren aurrerapen maila % 100ekoa da, jarduera kopuruaren eta gauzatze mailaren arabera.

---

[19] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua
[20] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua
[21] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua
[22] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

		BERRERABILTZEKO PRESTATZEKO PROGRAMA
BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-1	Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak, tamaina handikoak, ehunak eta beste tresna batzuk saldu, trukatu, konpondu eta birmanufakturatzeko sareak eta zerbitzuak babestea eta sustatzea.	Aurrerapen maila  127.000 €
BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-1.1	Merka2dasoa 2021 ekitaldia egitea.	· Txingudiko Mankomunitateak bigarren eskuko merkatuak antolatzen ditu urtero. Horietan, produktu asko trukatzen dira ondoren berrerabiltzeko. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[23]
BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-1.2	Hitzarmena EMAUS Gizarte Fundazioarekin.	· Gipuzkoako hiri hondakinak tratatzeko azpiegituren sareari dagokionez, azpimarratu behar da materialak berreskuratzeko hiru zentroak –EkoCenter izenez ezagutzen direnak– sendotu direla hondakinak berrerabil daitezen prestatzera bideratutako zentro nagusiak Gipuzkoan. Hiru EkoCenter horiek Donostiako Belartza industrialdean, Irun udal mugartean eta Arrasate udal mugartean daude. EkoCenter horiek azken urteotan ireki eta martxan jartzearen ondorioz, berrerabilpenerako prestatzeko eredu oso interesgarri bat finkatu da; izan ere, alde batetik, herritarrak modu eraginkorrean informatzeko eta kontzientziatzeko aukera ematen du, eta, bestetik, altzari, etxetresna elektriko, ehun, liburu, jostailu eta abarren balioespen energetikoa saihesten dira. Hala, ingurumen-tratamendu hobea izan dezakete. Eredu horren arrakastaren zati handi bat etxez etxeko bilketan edo EkoCenterren bertan

[23] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

		entregatzean oinarritzen da, eta ondoren sailkatu, konpondu edo birziklatu egiten dira. Aurretik aipatu ditugun arrazoiak direla eta, 2021ean Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Emaus Gizarte Fundazioak lankidetza hitzarmen bat sinatu zen, tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak tamaina handiko gaien, ehunen eta beste tresna batzuen salmenta, truke, konponketa eta birmanufakturaziorako sareak eta zerbitzuak babesteko eta sustatzeko lanak gauzatzeko. Zehazki, Emaus Gizarte Fundazioak Irungo EkoCenterra ustiatu ahal izateko sinatu zen hitzarmena. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 121.000 €*
BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-1.3	«Prebentzioa sustatzea Gipuzkoan» kanpainaren garapena.	· Proiektuaren ardatza ehunak berrerabiltzea da, berregokitzearen eta saltzearen bidez. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[24]
BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-1.4	«ScrapAd» proiektuaren garapena.	· Enpresen artean materialak trukatzeko webgune bat garatzea, batez ere birziklatzea eta enpresa sinbiosia sustatzearen bidez. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[25]
BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-1.5	Bigarren eskuko merkatuak, erabilitako objektuen berrerabilera sustatzeko.	· Eibarko Udalak garatutako ekintza, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntzen deialdiaren esparruan, zeinaren ildoetako bat ekonomia zirkularra baita. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[26]

[24] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua
[25] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua
[26] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-1.6	Hiriko tamaina handiko hondakinak prestatzeko programa, ondoren berrerabiltzeko eta eraldatzeko.	· Tamaina handiko hiri hondakinak berrerabiltzeko prestakuntza sustatzeko proiektua; horretarako, lankidetza akordio berriak bilatzen dira Gipuzkoako Merkataritza Federazioarekin, lurraldean hondakin mota hori gaika biltzeko. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[27]
BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-1.7	Birsortu sarea	· Gipuzkoako Foru Aldundiak ekonomia zirkularraren arloko jarduerak bultzatzen ditu, eta, besteak beste, industria sinbiosiari buruzko esperientziak sustatzen ditu Gipuzkoan kokatutako erakundeen artean edo erakundeokin batera. Horregatik, eta kontuan izanik oraindik ere berriak direla hondakinen kudeaketari buruzko esperientzia horiek enpresen artean, BIRSORTU proiektua finantzatu zuen 2021ean, hondakinen kudeaketaren eremuan ekonomia zirkularra bultzatzeko jarduketetarako dirulaguntzen deialdian. BIRSORTU proiektuak berrerabilera sortzailerako prestakuntza zentroak ditu oinarrian. Zentro horiek, azken buruan, hezkuntza, kultura eta gizarte gune gisa sortuak dira, ekonomia zirkularrari buruz kontzientziatzeko eta hondakinen prebentzioa sustatzen duten jarrerak bultzatzeko. Proiektu honen ondorioz sortu den ekintzetako bat Irizar kooperatiba elkartearen eta DON BOSCO LHIren arteko lankidetza proposamena izan da. Lankidetza proposamen horren bidez, bigarren bizitza bat eman nahi zaie Irizar Kooperatiba Elkarteko material eta/edo produktu soberakin jakin batzuei, betiere kontuan harturik material didaktiko gisa erabil eta balia daitezkeela, eta, ondorioz, haien kudeaketa jasangarria lor daitekeela, bai ingurumenaren ikuspegitik –ekonomia zirkularraren filosofiarekin lerrokatuta–, bai gizartearen eta hezkuntzaren ikuspegitik. Lankidetza proposamen hori behar bezala garatzeko, aipatutako bi erakundeez gainera, Emaús Gizarte Fundazioak materialen edo produktuen entregak koordinatzen ditu

[27] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

		adostutako epeetan, eta, horretaz gainera, aldeen arteko komunikazioa errazten du. Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak jarraipena egingo du; horretarako, tratatutako eta balioa emaniko hondakinen datuak jasoko ditu, eta informazioa bilduko du horrelako jardunbide egokiak inguruko beste erakunde batzuetara ere estrapolatu ahal izateko. Eragile horien koordinazioa hitzarmen hau sinatzean gauzatzen da, eta konpromiso hauek hartzen dituzte: - Don Bosco LHIIk jasotako materiala arduraz erabiliko duela, hondakinen prebentzioan eta ekonomia zirkularraren sustapenean laguntzeko konpromisoa hartzen duela, eta Emaus Gizarte Fundazioari eta Irizar Kooperatiba Elkarteari jakinaraziko diela zer erabilera eman zaien material horiei. - Irizar Kooperatiba Elkarteak Emaus Gizarte Fundazioari eta Don Bosco LHIIri jakinarazi beharko die BIRSORTU proiektuaren esparruan aprobetxa daitekeen hondakina sortu dela. - Emaus Gizarte Fundazioak doan entregatuko ditu materialak edo produktuak, alderdien artean adostutako epean, baldin eta objektuek BIRSORTU proiektuaren esparruan aprobetxatzeko beharrezko baldintzak betetzen badituzte. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 6.000 €*
BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-2	Garbiguneak tresna elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzko 110/2015 Errege Dekretura egokitzeko sustapena, mankomunitateekin batera.	Aurrerapen maila  18.029 €
BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-2.1	Debagoieneko Mankomunitateko garbiguneetan tresna elektriko eta elektronikoen bilketa eta biltegiratzea egokitzea.	· Debagoieneko Mankomunitateak garatutako ekintza Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntzen deialdiaren esparruan. Horren ildoetako bat ekonomia zirkularra da. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[28]

[28] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-2.2	Debabarreneko garbiguneak 110/2015 Errege Dekretura egokitzea.	· Debabarreneko Mankomunitateak garatutako ekintza Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntzen deialdiaren esparruan. Horren ildoetako bat ekonomia zirkularra da. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[29]
BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-2.3	Gipuzkoako 24 garbiguneen egoera aztertzeko eta guztiak ere 110/2015 eta 27/2021 Errege Dekretuetara egokitu ahal izateko azterketa egitea.	· Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak, garbiguneak tresna elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretura eta urtarrilaren 19ko 27/2021 Errege Dekretura egokitzeko (aurreko 110/2015 Errege Dekretua aldatzen duena), txosten honen idazketa kontratatu zuen, Gipuzkoako 24 garbiguneen egoeraren berri izateko. Horri esker, bi errege dekretu haietan zehaztutako obligazioak betetzeko beharrezko eskakizunak definitu nahi dira. Jarduera horien bidez, instalazioen ezaugarriak eta beharrak ebaluatu ziren tresna elektriko eta elektronikoen hondakinen kudeaketari dagokionez, eta bisitak egin ziren, ondoren, egoera txosten bat idazteko. Txosten horretan, ekintza plan bat jaso zen, eraberritze edo aldaketa lanak behar dituzten instalazio guztietarako. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 18.029 €*
BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-2.4	Sasietako Mankomunitateko garbiguneak hondakin elektriko eta elektronikoei buruzko Errege Dekretura egokitzeko lanak.	· Sasieta Mankomunitateak garatutako ekintza Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntzen deialdiaren esparruan. Horren ildoetako bat ekonomia zirkularra da. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[30]
BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-3	Garbiguneen eta minigarbiguneen sarea etengabe hobetzen laguntzea, berrerabiltzeko prestakuntza sustatzeko.	Aurrerapen maila 0 €

[29] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua
[30] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

· Ingurumen Departamentuak emandako dirulaguntzen artean (horietako batzuk BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-2 ekintzan aipatutakoak), garbiguneen eta minigarbiguneen sarea hobetzeko proiektuak identifikatu dira, berrerabiltzeko prestakuntza sustatzeko.		
BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-4	Berrerabilerarako Prestakuntza Zentro (BPZ) baten beharrak aztertzea.	Aurrerapen maila  42.950 €
BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-4.1	Berrerabilerarako prestakuntza zentro bat diseinatzea eta sortzea.	· Gipuzkoako Lurralde Historikoan sortutako eta bildutako hondakin potentzialki berrerabilgarrien tratamenduari estaldura emango dion berrerabilerarako prestakuntza zentro bateko instalazioak eta zerbitzuak diseinatzeko eta sortzeko proiektuari ekin dio Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak. Gipuzkoako Foru Aldundiak orain arte sortutako txostenen dokumentu berrikuspena egin da, ondoren Gipuzkoako Lurralde Historikoan berrerabil daitezkeen hondakinen kopuruak eta korronteak kalkulatu ahal izateko. Gaiaren berri izateko, antzeko beste jarduera batzuk aztertu dira, dagoeneko nazioartean inplementatu dituztenak, kontuan izanik baliagarriak izan daitezkeela berrerabilerarako prestakuntza zentroaren diseinu kontzeptualerako, eta bilerak deitu dira erakunde potentzialekin. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 18.150 €*
BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-4.2	Gipuzkoan ehun hondakinen, tamaina handikoen eta tresna elektriko eta elektronikoen hondakinen berrerabilera aktibatzeko esperientziak	· Proiektuaren helburua zen askotariko hondakinak berrerabiltzeko prestakuntza esperientzia pilotuak sortzea, ondoren Gipuzkoan erreplikatu ahal izateko. Horretarako, ehunak, tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak eta tamaina handiko gaiak izan ziren ardatz, eta herritarren parte hartze aktiboa bilatu zen, berrerabiltzeko prestaketa tailerren bidez. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 24.800 €*

BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-5	Kontsumitzaileentzako informazioa hobetzea eta produktu berrerabilgarriak merkaturatzea sustatzea (zuzenean edo berrerabiltzeko prestatu ondoren).	Aurrerapen maila  0 €
· 2021ean, aktiboki lan egin da kontsumitzaileentzako informazioa hobetzeko eta produktu berrerabilgarriak merkaturatzea sustatzeko, bereziki Hondakinak Prebenitzeko Europako Astean eta GK Green Fashionek egindako jardunaldi eta ekitaldien esparruan eginiko jardueretan.		

5.2.3.3 Birziklatzeko programa

Programa horrek 6 jarduera biltzen ditu guztira, eta 2021ean horietatik 3 gauzatzea zegoen aurreikusita. Hala ere, aurreikusi gabeko ekintza bat ere jorratu zen, BIRZIKLATZEA-2.
Programaren aurrerapen maila % 100ekoa da, jarduera kopuruaren eta gauzatze mailaren arabera.

		**BIRZIKLATZEKO PROGRAMA**
BIRZIKLATZEA-2	Konpostaje eta/edo biometanizazio instalazioen beharrak aztertzea.	Aurrerapen maila  0 €
BIRZIKLATZEA-2.1	Biohondakinak kudeatzea konpostaje komunitarioaren bidez Ataunen.	· Ataungo Udalak garatutako proiektu pilotua, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntzen deialdiaren esparruan, zeinaren ildoetako bat ekonomia zirkularra baita. *Aurreratze maila: % 100* *Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[31]
BIRZIKLATZEA-2.2	Materia organikoaren kudeaketa sustatzeko plana.	· Ekintza honetan, konpostajeari buruzko bi ekintza sartzen dira. Batetik, Sasieta Mankomunitateak kanpaina bat egiten du kalitatezko konposta (Epeleko plantatik datorrena) herritarren artean banatzeko, materia organikoaren banaketan egindako lanaren «sari» gisa. Eta, bestetik, komunitateko konpostaje-leku bat egokitzea ere sartzen da. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori. *Aurreratze maila: % 100* *Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[32]
BIRZIKLATZEA-2.3	Oñatiko komunitate konposta egiteko tokiak egokitzeko proiektua. II. fasea.	· Oñatiko Udalak garatutako ekintza, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntzen deialdiaren esparruan, zeinaren ildoetako bat ekonomia zirkularra baita. *Aurreratze maila: % 100* *Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[33]

[31] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua
[32] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua
[33] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

BIRZIKLATZEA-4	Obra publikoan birziklatutako agregakinen erabilera sustatzea		Aurrerapen maila  0 €
BIRZIKLATZEA-4.1	Ekonomia Zirkularreko lantaldea.	· 2021ean ekonomia zirkularreko eta berdeko lantalde bat eratu zen administrazio publikoetan. *Aurreratze maila: % 100* *Gauzatutako aurrekontua: 0 €*	
BIRZIKLATZEA-5	Gipuzkoako birziklatzearen klusterra (GK Recycling) bultzatzea ekonomia zirkularra sustatzeko: klusterra zabaltzea Gipuzkoako zentro teknologiko, unibertsitate, fundazio eta enpresa gehiago sar dadin; plan estrategikoa garatzea; I+G+Baren arloko ekintza pilotuak bultzatzea, irizpideak eta tresnak sustatu eta ikusarazteko; nazioartekotzeko eta hedatzeko ekintzak antolatzea Gipuzkoako Klima Aldaketaren Fundazioarekin eta beste kluster eta eragile batzuekin lankidetzan.		Aurrerapen maila  252.913 €
BIRZIKLATZEA-5.1	Ekonomia zirkularraren analisia eta diagnostikoa GK Recyclingen parte diren enpresetan	· 2021ean, Gipuzkoako Foru Aldundiak diagnostiko proiektu bati ekin zion, klusterreko enpresetan ekonomia zirkularra eta ingurumen irizpideak ezartzearekin loturik. Era berean, jarduteko aukerak aztertu ziren eta, gainera, bazkideek ekonomia zirkularraren, ekodiseinuaren, sinbiosiaren eta abarren alorrean eginiko proiektu eta ekimen nabarmenak identifikatu ziren. *Aurreratze maila: % 100* *Gauzatutako aurrekontua: 18.090 €*	
BIRZIKLATZEA-5.2	Hitzarmenak unibertsitateekin	· 2021ean hitzarmenak egin dira honako unibertsitate hauekin: · <u>TECNUN</u> ikerketa zentroa. TECNUN ikerketa zentroak enpresen trantsizioa bultzatzeko ikertzen jarduten du, eredu ekonomiko linealetik eredu zirkularrera igaro daitezen, eta, ildo horretan, sinbiosi industrialeko ekintzak inplementatzearen ondorioak aztertzen ditu Gipuzkoako enpresetan. Ekintza horiek aurreko SAREA proiektuan garatutako esparru estrategikoaren parte izango dira; hala, epe laburrean Gipuzkoan ekonomia zirkularraren ezarpena bizkortzeko aukera emango duen tresna bat eskuratu nahi da, enpresetako baliabideen zikloak itxi ahal izateko. 2020an, TECNUNek web plataforma bat garatu zuen, Market Zirkularra izenekoa, hondakinak baliabide gisa trukatzea errazteko; hari esker, eskaria eta eskaintza sortzen ditu eta ziklo zirkularra ixten laguntzen du. 2021ean, plataforma horren 2.0 bertsioa garatzeari ekin dio. Haren	

		helburua da informazioa hobetzea lurraldean hobekien posizionatuta dauden enpresen gainean, sinergiak sustatzen dituzten eta trantsizioa bizkortzeko sinbiosi industrialeko prozesuak sortzen dituzten heinean. · UPV/EHU: - Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola: Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua, itsas zaborrari lotutako arazoaz jabetuta, LIFE LEMA proiektu europarraren buru izan da, Europar Batasunaren LIFE Ingurumen eta Klimaren aldeko Ekintza programaren barruan. Jarduera horien esparruan, azken urteotan, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Euskal Herriko Unibertsitateko Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola elkarlanean ari dira Gipuzkoako kostaldeko mikroplastikoen arazoa aztertzeko, EHUko Ingeniaritza Kimikoko eta Ingurumeneko Departamentuaren eta Materialak + Teknologiak ikerketa taldearen bitartez. Lankidetza horren ondorioz, mikroplastikoen laginketak eta karakterizazioak egin dira Gipuzkoako hondartzetan eta kostaldean. 2021ean, ItsasMicro 2019 eta 2020 Proiektuaren esparruan garatutako ikerketa lanei bultzada bat emateko, Euskal Herriko Unibertsitateko Materialak + Teknologiak ikerketa taldearen lankidetza gorpuztu da. Horren helburua mikroplastikoak prebenitzeko beharrezko estrategiak zehaztea da, Gipuzkoako kostaldeko kasuistikara egokituta betiere. Horretarako, Gipuzkoako kostaldean 2019an hasitako mikroplastikoak zenbatesteko lanak osatu eta ebaluatu dira (Donostiako Kontxako badiako urak eta hondartzak). Ildo horretan, mikroplastikoen foku eta sektore potentzial nagusiak identifikatu dira eta lehorreko eta itsasoko hondakinak kudeatzera bideratutako prebentzio estrategia garatu da. Egindako ikerketa jendartean zabaltzeko jarduerak ere sartu dira hitzarmenean. Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolarekin lankidetzan aritzeko beste arlo bat ere nabarmendu behar da; hau da, 2020an sustatutako UPV/EHU Ekonomia Zirkularreko Ikasgelari jarraipena ematea. Ikasgela haren helburu nagusia da gai horri buruzko azterlan, analisi edo ikerketa lan akademikoak egitea, betiere Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako irakasle, ikertzaile eta ikasleen partaidetzarekin. 2021ean, gai hauekin egon dira loturik Unibertsitatea-Ekonomia Zirkularreko Enpresa ikasgelaren jarduera ildoak: Gradu eta graduondokoen prestakuntza eremuan lankidetzan aritzea, ekonomia zirkularraren erronketara egokitutako talentua sortzeko eta ikasleen enplegagarritasuna hobetzeko; ekonomia

		zirkularraren sektorerako interesgarriak diren saioak eta jardunaldiak batera antolatzea; sektorerako gaurkotasun gaiei buruzko azterketa, analisi edo ikerketa lan akademikoak gauzatzea; ordezkaritza eta lan foroetan, kongresuetan, azoketan eta abarretan batera parte hartzea, autonomia, estatu edo nazioarte mailan; lortutako azterketa eta ikerketen emaitzak zabaltzea. Jarduera horien artean, garrantzitsua da kontratazio eta erosketa publiko zirkularrari buruzko proiektuaren garapena azpimarratzea. - UPV/EHU-HABIC enpresa-ikasgela, Arkitekturako Goi Eskola Teknikoarena. Arkitekturako Goi Eskola Teknikoa eta HABIC (Euskadiko ekipamendu, altzari, eta diseinu klusterra) lankidetzan aritu dira, eta zenbait jarduera jarri dituzte abian berrikuntzarekin, prestakuntzarekin eta jakintza sortu eta eraldatzearekin lotuta, guztiak ere lurraldean arkitektura jasangarriaren eta produktu berritzaileen diseinua eta garapena sustatzera bideraturik. Lankidetza horren ondorioz, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuarekin sinatutako hitzarmenari esker, UPV/EHU-HABIC ENPRESA IKASGELA izeneko enpresa berritzailea sortu zen, eredu jasangarri eta arduratsu baterantz eraldatzeko lan egiteko; horretarako, ekodiseinuan oinarrituriko eta ingurumena errespetatzen duten produktuak eta sistemak proposatu dituzte, eta sektorearen lehiakortasunerako abantailak sortu dituzte, jasangarritasuna bektore gisa hartuta. · CEIT ikerketa zentroa. Unibertsitateek, teknologia zentroek eta enpresek birziklatzearen kluster horretan parte hartzearen helburua da, besteak beste, baliabideak modu efizienteagoan erabiltzea, lehengai gutxiago erauztea eta hondakinen bizitza luzatzea, dela berrerabiliz, dela berriro balioa emanez. Testuinguru horretan, justifikatuta dago Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak CEIT teknologia zentroarekin eta GK Recycling klusterrarekin lankidetzan jarraitzeko duen interesa, helburu horiek lortze aldera. Lankidetza esparru horren barruan, ikerketa lerro berri bat ireki da 2021ean, tresna elektriko eta elektronikoen hondakinetan dauden lur arraroetatik eratorritako elementuak berreskuratzeko. Zehazki, neodimioa (Nd) modu aurreratuan birziklatzeko prozesu disolbatzaile bat garatu da gailu elektronikoetan ageri diren iman hondarretatik abiatuta. · Deustuko Unibertsitatea. Lankidetza hitzarmen baten bidez, ikerketa ildo berri bat abiarazi da, zeinaren helburua baita elikagaien xahutzea

		kuantifikatzeko metodologia bat zehaztea eta aplikatzea, hiri hondakinak kudeatzeko sistemetatik abiatuz. 2021ean, Deustuko Unibertsitatea prozesu metodologiko bat garatzen hasi da hondakin organikoak sortzeko ereduak aztertzeko, xahutzea barnean harturik. Hori horrela, haien ingurumen inpaktua eta prebentzioa analizatu nahi dira, bai eta pandemiak aldagai horietan duen inpaktua ere. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 198.440 €*
BIRZIKLATZEA-5.3	GK Recycling klusterreko enpresen jardun sozialaren gaineko diagnostikoa.	· Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak, GK Recycling klusterreko enpresen egoera ezagutu nahian, diagnostiko bat egiteari ekin zion 2021ean, enpresa haien zirkulartasun mailari eta garapen jasangarriko helburuekin duten lerrokadurari dagokienez. Ildo horretan, zenbait alderditatik aztertu zituzten klusterreko enpresak; esate baterako, inpaktu sozialaren eta garapen jasangarriko helburuak betetzearen ikuspegitik. Horretaz gainera, metodologiaren hobekuntzak identifikatu ziren, eta etorkizunean inpaktu soziala hobetzeko datuak bildu ziren. Azkenik, lortutako emaitzak aztertu zituzten. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 18.150 €*
BIRZIKLATZEA-5.4	Kafea proiektua.	· Kafe kapsulak birziklatzeko proiektua. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[34]
BIRZIKLATZEA-5.5	Donostia Zinemaldiko alfonbra gorriaren Upcycling birdiseinua	· Donostia Zinemaldian erabilitako alfonbra birziklatzea ardatz duen proiektua. Horretarako, materiala garbitzeko eta desinfektatzeko lana egin da aldez aurretik. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 6.050 €*
BIRZIKLATZEA-5.6	Donostia Zinemaldiko alfonbra gorria hornitzea.	· Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak Donostia Zinemaldiko desfilean erabili zen «alfonbra gorria»

[34] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

		hornitzeko zerbitzua kontratatu zuen. Material birziklagarriekin fabrikatu zen alfonbra hori. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 10.288 €*
BIRZIKLATZEA-5.7	Kafea proiektuaren kanpaina.	· Kafea proiektua sustatzeko ekitaldia Urbil merkataritza gunean (Eroski). *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 1.895 €*
BIRZIKLATZEA-6	Esperientzia arrakastatsuak trukatzea, identifikatzea eta zabaltzea, Gipuzkoako GK Recycling birziklatze klusterraren bidez. Bilketako jardunbide onenak zabaltzea.	Aurrerapen maila  1.723 €
BIRZIKLATZEA-6.1	Padrongo piperra lantzeko 100 kit hornitzea.	· 2021eko udan, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Ecograsekin batera, kafe kapsulak biltzen eta birziklatzen parte hartu zuen. Ecograsek Padrongo piperra lantzeko kit bat garatu du, loreontzi tapadun batekin. Loreontzi horren materialak kapsuletatik lortutako plastiko birziklatutik abiatuta eginak dira. Era berean, kafe konpostatu kantitate batekin etortzen da –baztertutako kapsuletatik lortua–, eta kapsulen hondakinei irteera ematea lortzen du, ekonomia zirkularraren printzipioei jarraituz. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 1.723 €*

5.2.3.4 Balorizazio programa: materiala eta energia

Programa horrek bi jarduera biltzen ditu guztira, zeinak 2021ean gauzatzeko baitzeuden aurreikusita.

Programaren aurrerapen-maila, 2021ean gauzatu beharreko jarduketen kopuruari eta gauzatze-mailari erreparatuta, % 100ekoa da.

 	**BALORIZAZIO PROGRAMA: MATERIALA ETA ENERGIA**

BALORIZAZIOA-1	I+G+Baren arloko laguntza, ekonomia zirkularreko eta bioekonomiako produktu berriei aplikatzeko.	Aurrerapen maila 100% 36.300 €
BALORIZAZIOA-1.1	Home EKOMODO zirkularra	· Proiektuaren xedea izan da hondakinak aprobetxatzea –hala nola ontzi arinak sailkatzeko plantetako kontsumo osteko polietilenoa–, eta, hasierako hondakina asko eraldatu ondoren, produktu birziklatuak garatzea. Azkenean ekoitzitako produktuen artean ageri dira, esaterako, *merchandising* produktuak, baina baita karpetak, poteak eta bestelakoak ere. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntzen deialdiaren esparruan garatutako ekintza. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[35]
BALORIZAZIOA-1.2	Kolagenoarekin eta beste biopolimero batzuekin formulazioak garatzea, prestazio hobeak lortzeko.	· Helburua kolagenoz egindako bioplastiko bat formulatzea da, plastiko filmatua ekoizteko erabiltzen den galautsa lortzeko, eta, besteak beste, elikaduraren sektorean erabiltzen dena ordezteko. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[36]
BALORIZAZIOA-1.3	«Ehungintzako hondakinak lurraldean: tokiko zikloa ixteko estrategiak» azterlana garatzea.	· Ehungintzako hondakinei buruzko azterlan bat egiteko proiektua. Egitasmo horretan, alde batetik, kontsumitu ondoko ehunkien analisia eta, bestetik, hiri hondakinen tankerakoak diren industria, merkataritza eta erakundeetako ehun-hondakinak aztertu ziren, Gipuzkoarako berrerabiltze eta birziklatze tasak optimizatu ahal izateko. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.

[35] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua
[36] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

		Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €[37]
BALORIZAZIOA-1.4	GK TEX ehun jasangarria fabrikatzeko proiektua garatzea.	· Ehungintza sektorerako birziklatze proiektu bat egitea. Helburua da ehun bat hiru dimentsiotan inprimatzea, bi osagaiz osatutako jantzi jasangarrietan erabiltzeko: bata zurruna (bilbea) eta bestea elastikoa (irazkia), biak ere material birziklatutik abiatuta. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[38]
BALORIZAZIOA-1.5	«Beste bizitza bat sarean» proiektuaren garapena.	· Ekintza *Aita Mari* erreskate ontziaren salbagerrikoak birziklatzean datza, motxilak egiteko. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[39]
BALORIZAZIOA-1.6	RECICON proiektuaren garapena.	· Azterlan bat egitea, ehungintzako soberakinak eraldaketa mekaniko eta kimikorako aprobetxatzeari eta eraikuntzaren sektorean isolatzaile gisa edo antzeko beste erabilera batzuetan erabiltzeari buruz. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[40]
BALORIZAZIOA-1.7	RECITEX proiektuaren garapena.	· Ehungintzako soberakinak edo hondakinak aprobetxatzeko azterketa bat egitea, horretarako transformazio mekaniko eta kimikoa baliatuz. Helburua da ehun birziklatuak lortzea, ondoren jantzi berrietan erabili ahal izateko.

[37] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua
[38] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua
[39] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua
[40] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

		Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[41]
BALORIZAZIOA-1.8	Pellet berogailua.	· Kafe hondarrak aprobetxatzeko eta pellet bihurtzeko gai den prototipo bat sortzeko erakustaldi proiektua. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[42]
BALORIZAZIOA-1.9	Zirkulartasuna eta jasangarritasuna txatarraren eta hondakin produktuen sektorean.	· Funtsean, ekonomia zirkularreko sistema integratu bat garatu eta ezarri da proiektuan. Horretarako, egoeraren diagnostikoa egin zen, eta zenbait adierazle eta helburu definitu ziren, etorkizunean zirkulartasun handiagoa bermatzeko. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[43]
BALORIZAZIOA-1.10	Industria % 100 zirkularra.	· Proiektuak enpresa multzo baten arteko sinbiosi industriala sustatu nahi du, enpresa batzuek sortutako hondakinak beste batzuek aprobetxatu ahal izan ditzaten. Helburua enpresen sare bat sortzea da, eta, hondakinetatik abiatuta, birziklatutako produktuak garatzea. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[44]

[41] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua
[42] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua
[43] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua
[44] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

BALORIZAZIOA-1.11	Mentoring Sustainable Fashion Lab 2021.	· Ehungintza sektorerako birziklatze proiektu bat egitea. Material birziklatutik abiatuz, hainbat osagarri 3D formatuan inprimatzea da helburua (esaterako, botoiak...). Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[45]
BALORIZAZIOA-1.12	Materia organikoaren aurreikuspena eta berraprobetxamendua.	· Azterketa eta erakusketa proiektu honen bidez, ostalaritza sektoreko materia organikoa aprobetxatu nahi da, *Hermetia illucens* euliaren bidez. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[46]
BALORIZAZIOA-1.13	SFA proiektua.	· Proiektu honen xedea da establezimendu handietan (jatetxeak...) sortutako sukaldeko olioaren kudeaketa efizientea sustatzea. Jardueraren ardatza da berrikuntzak sustatzea hondakin horren tratamenduan (depositu kontrolatua, iragazketa...). Horri esker, balorizazio energetikorako gaikako bilketa hobetu nahi da. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[47]
BALORIZAZIOA-1.14	WEARCYCLE proba pilotuaren garapena.	· Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak eta Ternua Groupek, Belda Lloréns eta Gureak laguntzaile dituztela, Wearcycle programa jarri dute abian 2021ean. Egitasmo berezi horren bidez, Gureak Taldeko Ikuztegia garbitegi industrialeko ehun hondakinak birziklatzen dira, ondoren jantzi berriak sortu ahal izateko. · Wearcycle proiektua, beraz, zenbait eragileren arteko lankidetzaren adibide bat da, zeinaren

[45] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua
[46] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua
[47] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

		bidez konponbidea ematen baitzaio kontsumo ondoko ehun hondakinaren arazo garrantzitsuari; izan ere, bizi zikloaren amaierara iritsi diren ehunkiak biltzea du ardatz, hondakin horietatik abiatuta hari berriak sortzeko. Proiektu horren bidez, hondatutako bi tona ehun birziklatu dira, zehazki, hoteletako kotoizko maindireak –Oiartzungo Gureak Ikuztegia garbitegian garbitzeko prozesuarekin hondatuak, alegia–. Ehunki haiek oinarri harturik, Belda Lloréns etxeak hari oso erresistentea eta erabat jasangarria sortu du, eta Ternua Groupek kamisetak eta jertseak egiteko erabili du, gizonentzat zein emakumeentzat. Guztira, 18 jantzi sortu ditu (11 Loreak Mendian eta 7 Ternua), eta otsailetik aurrera egongo dira eskuragarri ohiko saltokietan. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 36.300 €*
BALORIZAZIOA-2	Gipuzkoako Ingurumen Gunearen azterketa eta jarraipen azterlanak.	Aurrerapen maila 378.943 €
BALORIZAZIOA-2.1	Gipuzkoako Ingurumen Guneko laginak biltegiratzea eta mantentzea.	· 2019an amaitu zen «Gipuzkoako Ingurumen Gunearen zati den balorizazio energetikoko instalazioari buruzko azterketa epidemiologikoa» proiektuan lortutako lagin biologikoen soberakinak 2021ean biltegiratzeko eta mantentzeko zerbitzua. Laginak Euskal Biobankuan gordetzen dira, etorkizuneko azterlan edo ikerketetan erabiltzeko beharra sortzen bada ere. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 2.183 €*
BALORIZAZIOA-2.2	Gipuzkoako Ingurumen Gunearen kontrol epidemiologikoa.	· Balorazio energetikorako instalazioarekin lotutako azterketa epidemiologikoa egitea. Azterlanak hiru lan ildo jasotzen ditu: immisioa, biomarkatzaileak eta populazioen osasunaren azterketa orokorra. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 350.000 €*
BALORIZAZIOA-2.3	Lurzoruetako eta landarediko dioxinen analisia.	· Lurzoruetan, landaredian eta elikagaietan (arrautzak eta esnea) zenbait kutsatzaileren presentzia aztertzeko lanak.

		Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 26.760 €

5.2.4 Deuseztapena optimizatzeari buruzko programa

Programa horrek bi jarduera biltzen ditu orotara, eta horietako bat 2021ean gauzatzeko aurreikusita dago.

Programaren aurrerapen-maila, 2021ean gauzatu beharreko jarduketen kopuruari eta gauzatze-mailari erreparatuta, % 100ekoa da.

	**DEUSEZTAPENA OPTIMIZATZEARI BURUZKO PROGRAMA**	
DEUSESTATZEA-1	Bigarren mailako hiri hondakinen isurketa minimizatzea eta optimizatzea.	Aurrerapen maila  0 €
DEUSESTATZEA-1.1	BETERSU proiektuaren garapena.	· Hiri errausketako zepak obra zibileko betegarri gisa balorizatzea aztertzeko erakustaldi proiektua. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori. *Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €*[48]
DEUSESTATZEA-2	Zabortegian utzitako bigarren mailako hiri hondakinen kalitatea eta trazabilitatea kontrolatzeko sistema eraginkor bat ezartzea, 2018/850 Zuzentaraua betetzen dela bermatzeko.	Aurrerapen maila  0 €
· 2021ean zehar, tratatutako hondakinen kalitatea eta trazabilitatea bermatu dira, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketaren eta Gipuzkoako Ingurumen Gunearen kontrol sistemen bidez.		

[48] PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

6 GIPUZKOAKO HIRI HONDAKINAK KUDEATZEKO PLAN OROKORREKO ADIERAZLEEN BETETZE MAILAREN AZTERKETA, 2021. URTEA

6.1 Udal hondakinen sorrera eta kudeaketa Gipuzkoan

Atal honetan, udal hondakinen sorrerak eta kudeaketak 2021ean izandako bilakaera aztertzen da, baita Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrean jasotako adierazleak ere. Txosten honetan aztertuko dira, batetik, Gipuzkoako 2021. urteko udal hondakinen inbentariotik eratorritako datuak, eta, bestetik, hondakin frakzio horren bilketan eta/edo tratamenduan eragiten duten beste agente batzuek bildutako eta emandako informaziotik eskuratutakoak.

Zehazki, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren adierazleen balioa kalkulatu ahal izateko, Ekoizlearen Erantzukizun Zabalduaren Sistema Kolektiboen memoriak eta EAEko hiri hondakinen inbentariotik eratorritako datuak aztertu dira.

2021eko datuak aztertu ondotik, eta Gipuzkoako udal hondakinen sorreraren eta kudeaketaren bilakaerari dagokionez, ikus daiteke 329.177 tona hondakin sortu direla 2021ean, iaz baino % 4,59 gehiago (14.500 tona). 2020arekin alderatuta, % 4,75ekoa da biztanleko eta urteko hondakinen sorreraren aldakuntza: 2020an 423 kilo sortu ziren biztanleko, eta 2021ean, berriz, 443 kilo.

3. irudia. Sorkuntza datuak, Gipuzkoako bilketa motaren arabera banatuta. 2020-2021 urteak

SARRERA DATUAK / DATOS GENERACIÓN	2020		2021	
	Sorrera osoa (tonak)/ Total generación (toneladas)	Kg/hab/año	Sorrera osoa (tonak)/ Total generación (toneladas)	Kg/hab/año
ERREFUSAREN FRAKZIOA GUZTIRA / FRACCIÓN RESTO TOTAL	132.315	177,81	138.020	185,76
ERREKUPERATZEN EZ DEN Errefusa / Resto no RECUPERADO	127.540	171,39	131.640	177,17
ERREKUPERATZEN DEN Errefusa / Resto RECUPERADO	4.775	6,42	6.380	8,59
GAIKAKO BILKETA / RECOGIDA SELECTIVA	182.405	245,12	191.157	257,28
Biohondakina / Biorresiduo	56.464	**75,88**	58.940	**79,33**
Papera eta kartoia / Papel y cartón	41.652	55,97	42.550	57,27
Ontzi arinak / Envases ligeros	24.573	33,00	24.895	33,51
Cápsulas de café	13	0,02	59	0,08
Beira / Vidrio	24.323	32,69	25.909	34,87
Tamaina Handikoak / Voluminosos	3.331	4,48	6.973	9,38
Arropa / Textil	3.400	4,57	3.378	4,55
Sukaldeko Olioa / Aceite de cocina	523	0,70	526	0,71
Pilak / Pilas	108	0,14	90	0,12
Bestelakoak / Otros	28.017	37,67	27.838	37,47
SORRERA GUZTIA/ GENERACIÓN TOTAL	314.720	422,93	329.177	443,04

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

Gaikako bilketari dagokionez, igoera esanguratsuak nabarmendu dira honako frakzio hauetan: biohondakina % 4,38 igo da etxeko eta komunitateko konpostajearen kontabilizazioarekin,

Europako birziklatzea kalkulatzeko arauek jasotzen duten bezala; beira eta paper bilketa ere areagotu egin da, % 6,52 eta % 2,15, hurrenez hurren –pandemiaren osteko merkataritza eta ostalaritza susperraldiaren sintoma–, eta beste horrenbeste gertatu da ontzi arinekin ere, % 1,31 areagotu baita haien gaikako bilketa.

4. irudia. Gipuzkoa+ gaikako bilketa, hondakin tipologiaren arabera (tonak eta %). 2007-2021 urteak



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

Bereziki nabarmentzekoak dira materia organikoaren gaikako bilketan lortutako kantitateak. Orotara 58.940 tona sukalde eta inausketa hondakin bildu dira, baita etxeko konpostajera eta komunitateko konpostajera bideratutakoak ere, hau da, urtean 79,3 kg biztanleko.

Gaikako bilketa eta bereizketa tasa, GIG1 eta GIG2 guneetan masan jasotako bilketa selektiboaren eta birziklagarrien bereizketaren batura gisa zenbatuta, 20 puntu inguru handiagoa da gainerakoen frakzioa baino, eta % 60,01ekoa da.

5. irudia. Birziklatze datuak, frakzioen eta guztizkoaren arabera, eta gaikako bilketaren tasa + Gipuzkoako gainerako zatien berreskurapena. 2021 vs 2020



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

2021eko **birziklatze tasa** % 55,32koa da, aurreko urtean baino 0,88 puntu handiagoa, eta gainditu egiten du 2025erako Europako % 55eko helburua. Erantsitako irudian ikusten den bezala, eta frakzioei erreparatuta, beiraren, paper eta kartoiaren eta ontzien bilketa tasak gainditu egiten du Europako 2025erako helburua.

6.2 Adierazleen kalkulua

Atal honetan, halaber, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren 9.2 ataleko («Jarraipen adierazleak») 42. taulan («2019-2030 aldirako Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren helburuen jarraipen adierazleak») jasotako adierazleen kalkulu bat jasotzen da, zeina osorik eskuratu baitaiteke dokumentu honen *I. eranskina: Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan* Orokorraren adierazleak, 2019-2030 *aldirako Plan Orokorra* atalean.

Jarraian, horietako bakoitzaren emaitza eta programa bakoitzaren adierazle nagusien balioespena jasotzen dira, adierazlea kalkulatzeko erreferentzia balio bat duten adierazleak aintzakotzat harturik.

19. taula. Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren adierazle nagusien kalkulua, 2021. urtea

Prebentzioa			
ADIERAZLEA	**HELBURUA**	**EMAITZA**	
Sorkuntza % 10 murriztea 2010eko guztizkoaren gainean	–% 10	–% 5,5	😐
Hiri hondakinen sorrera (kg/biztanle eta urte) (eraikuntza eta birgaitzeko hondakinik gabe)	443	443	☺
Elikagai hondakinen *per capita* sorkuntza murriztea 2015arekiko	-% 50 (2030)	% 9,1	☹
Plastikozko poltsa arinen kontsumoa pertsonako	90 (2019) 40 (2025)	e.d.	—
Poltsa lodietan birziklatutako plastikoaren batez besteko %	% 50 (2020)	e.d.	—
Plastikozko poltsa arin eta oso arinen kontsumoa pertsonako	0 (2021)	e.d.	—
Ontzi arinen sorreraren murrizketa 2010ekoarekin alderatuta (%)	–% 10	– % 11,5	☺
Beirazko ontzien sorreraren murrizketa 2010ekoarekin alderatuta (%)	–% 10	– % 0,03	☹

Prebentzioa			
ADIERAZLEA	HELBURUA	EMAITZA	
Etxeko hondakin arriskutsuen murrizketa, 2010ekoarekin alderatuta (%)	–% 10	–% 0,5	☹
Eraikuntzako eta eraisketetako hondakinak murriztea 2010. urtearekin alderatuta	–% 10	–% 48,4	☺
Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak murriztea, 2010. urtearekin alderatuta	–% 10	–% 0,6	☹
Biohondakinak murriztea, 2010. urtearekin alderatuta (%)	–% 10	% 16,3	☹

Berrerabiltzeko prestatzea			
ADIERAZLEA	HELBURUA	EMAITZA	
Aparatu handiak berrerabiltzeko prestakuntza tasa (%)	% 3 (2020)	% 2,1	☹
Osagai arriskutsuak dituzten informatikako eta telekomunikazioetako aparatu txikiak berrerabiltzeko prestakuntza tasa (%)	% 4 (2020)	% 0	☹
Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak berrerabiltzeko prestakuntza tasa (%)	% 5 (2020)	% 0,90	☹
Hiri hondakin guztiak berrerabiltzeko prestakuntza tasa (%)	% 2 (2020)	% 1,00	☹

Gaikako bilketa			
ADIERAZLEA	HELBURUA	EMAITZA	
Biohondakinen gaikako bilketa eta bereizketa tasa (%)	% 60 (2020)	% 50,1	😐
Eraikuntza eta birgaitzeko hondakinen gaikako bilketa eta bereizketa tasa (%)	% 75 (2020)	% 80,6	☺
Paperaren gaikako bilketa eta bereizketa tasa (%)	% 60 (2020)	% 78,4	☺
Beiraren gaikako bilketa eta bereizketa tasa (%)	% 60 (2020)	% 79,9	☺
Ontzi arinen gaikako bilketa eta bereizketa tasa (%)	% 60 (2020)	% 72,5	☺
Metalaren gaikako bilketa eta bereizketa tasa (%)	% 60 (2020)	% 44,1	😐
Egurraren gaikako bilketa eta bereizketa tasa (%)	% 60 (2020)	% 95,6	☺
Pilen eta baterien gaikako bilketa eta bereizketa tasa (%)	% 80 (2020)	% 63,3	☹
Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinen gaikako bilketa (kg/bizt urte)	4 kg/biztanle eta urte[49]	8,6	☺
Fibrozementu frakzioaren bilketaren estaldura maila (biztanleen %)	Bilketa sistema egonkorrak ezartzea	% 53	☹
Etxeko hondakin arriskutsuen frakzioaren bilketaren estaldura maila (biztanleen %)		% 100	☺

[49] Gutxieneko bilketa indizea merkatuan sartutako tresna elektriko eta elektronikoen batez besteko pisuaren % 65 izango da, edo, bestela, sortutako tresna elektriko eta elektronikoen hondakinen % 85.

Gaikako bilketa			
ADIERAZLEA	HELBURUA	EMAITZA	
Ehunen frakzioaren bilketaren estaldura maila (biztanleen %) %		% 100	☺
Biohondakinen frakzioaren bilketaren estaldura maila (biztanleen %)	2024	% 100	☺

Birziklatzea eta balorizazioa			
ADIERAZLEA	HELBURUA	EMAITZA	
Tresna elektriko eta elektronikoen hondakin guztien balorizazio tasa (%)	% 75-% 85 (2020)	% 99,2	☺
Tresna elektriko eta elektronikoen hondakin guztiak berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestaketa tasa (%)	% 55-% 80 (2020)	% 98,3	☺
Papera eta kartoia berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestakuntza tasa (%)	% 70 (2020)	% 77,5	☺
Beira berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestakuntza tasa (%)	% 60 (2020)	% 79,4	☺
Plastikoak berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestakuntza tasa (%)	% 55 (2020)	% 60,3	☺
Metalak berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestakuntza tasa (%)	% 60 (2020)	% 70,9	☺
Egurra berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestakuntza tasa (%)	% 55 (2020)	% 95,6	☺
Ontzi arinak berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestakuntza tasa (%)	% 55 (2020)	% 66,0	☺
Biohondakinak berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestakuntza tasa (%)	% 50 (2020)	% 49,6	☺
Ehunak berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestakuntza tasa (%)	% 50 (2020)	% 25,8	☺
Beste material batzuk berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestakuntza tasa (%)	% 10 (2020)	% 0,9	☹
Hiri hondakin guztiak berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestakuntza tasa (%)	% 50 (2020) % 55 (2025) % 70 (2030)	% 55,3	☺
Hiri-hondakin guztien balorizazio energetikoaren tasa (%)	% 15 (gehienez)	% 40,6	😐
Ontzi guztien berrerabiltze eta birziklatze tasa (%)	% 65 (2020) % 70 (2030)	% 76,9	☺
Plastikozko ontzien berrerabiltze eta birziklatze tasa (%)	% 50 (2020) % 55 (2030)	% 64,9	☺
Egurrezko ontzien berrerabiltze eta birziklatze tasa (%)	% 25 (2020) % 30 (2030)	% 91,9	☺
Burdin metalezko ontzien berrerabiltze eta birziklatze tasa (%)	% 70 (2020) % 80 (2030)	% 64,4	😐
Aluminiozko ontzien berrerabiltze eta birziklatze tasa (%)	% 50 (2020) % 60 (2030)	% 63,0	☺
Beirazko ontzien berrerabiltze eta birziklatze tasa (%)	% 70 (2020) % 75 (2030)	% 79,4	☺
Paper eta kartoizko ontzien berrerabiltze eta birziklatze tasa (%)	% 75 (2020) % 85 (2030)	% 77,5	☺
Ontzi guztien birziklatze tasa (%)	% 55-% 80 (2019)	% 76,9	☺
Beirazko ontzien birziklatze tasa (%)	% 60 (2019)	% 79,4	☺

Birziklatzea eta balorizazioa			
ADIERAZLEA	HELBURUA	EMAITZA	
Paper eta kartoizko ontzien birziklatze tasa (%)	% 60 (2019)	% 77,5	☺
Burdin metalezko ontzien birziklatze tasa (%)	% 50 (2019)	% 64,1	☺
Plastikozko ontzien birziklatze tasa (%)	% 22,5 (2019)	% 64,9	☺
Egurrezko ontzien birziklatze tasa (%)	% 15 (2019)	% 87,3	☺
Ontzi guztien balorizazio tasa (%)	% 60 (2019)	% 93,2	☺
Ontzi guztien birziklatze tasa (%)	% 70 (2020)	% 76,9	☺
Beirazko ontzien birziklatze tasa (%)	% 75 (2020)	% 79,4	☺
Paper eta kartoizko ontzien birziklatze tasa (%)	% 85 (2020)	% 77,5	😐
Burdin metalezko ontzien birziklatze tasa (%)	% 70 (2020)	% 64,1	😐
Plastikozko ontzien birziklatze tasa (%)	% 40 (2020)	% 64,9	☺
Egurrezko ontzien birziklatze tasa (%)	% 60 (2020)	% 87,3	☺
Gaikako bilketatik sortutako ontzi birziklatuak, birziklatutako ontzi guztiei dagokienez (%)	% 70 (2020)	% 93,8	☺
Eraikuntzako eta eraisketetako hondakinen balorizazio tasa (%)	% 70 (2020)	% 60,5	😐

Deuseztatzea optimizatzea			
ADIERAZLEA	HELBURUA	EMAITZA	
Aldez aurreko tratamendurik gabe isuritako hondakinak (t)	0 (2019)	0	☺
Hiri hondakin guztien deuseztatze tasa (%)	% 35 (2020) % 10 (2030)	% 5,7	☺
Eraikuntzako eta eraisketetako hondakinen deuseztatze tasa (%)	% 30	% 39,5	😐

Hiri hondakinen sorrera murriztu egin da 2010. urtearekin alderatuta, baina lortutako murrizketa (% 5,5) ezarritako helburuaren erdi parean geratu da (% 10). Hondakinen sorreran nabarmendu beharreko alderdi bat da azken hamar urteetan areagotu egin direla masan bildutakoaren eta modu selektiboan bildutakoaren arteko baturaren ondoriozko biohondakinen kantitateak. Azpimarratu beharreko adierazle bat da hondakinen sorrera pandemia aurreko mailetan kokatzen dela, biztanleko 443 kilorekin, eta oso azpitik jarraitzen duela Europako batezbestekoaren aldean (500 kg-tik gorakoa).

Berrerabiltzeko prestaketa tasa hiri hondakin guztien % 1 da. Adierazle hori helburuaren azpitik geratu da, 2020an % 2ra iritsi baitzen.

Gipuzkoan, hondakinen **gaikako bilketaren** estaldura maila % 100ekoa da etxeetako biohondakinen, ehunkien edo hondakin arriskutsu orokorren kasuan. Halaber,

fibrozementuaren bilketari dagokionez, herritarren erdiek baino gehiagok (% 53k) eskura ditzakete bilketak.

2021ean, **birziklatze tasa** % 55,3koa izan da, eta gainditu egin du 2025erako Europako % 55eko helburua.

Azkenik, azpimarratu behar da Gipuzkoak gaur egun ez duela isurtzen batere hondakinik **deuseztatzera**, aurretik tratatu gabe.

7 LEGE ETA PLANGINTZA AURRERAPEN BERRIAK

Txosten hau idazterakoan, eguneratu dira hondakinekin loturiko zenbait arau eta plangintza, eta inpaktu zuzena izan dute Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrean: alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskutsuak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030erako; bigarrenik, *7/2022 Legea, apirilaren 8koa, ekonomia zirkularrerako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoa*; hirugarrenik, *Elikagai xahutzeak eta hondakinak prebenitzeko Lege Proiektua*; eta, laugarrenik, *10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena*.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskutsuak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2020ko Plana 2021era arte egon da indarrean, eta, hari esker, aurrerabideak lortu dira Euskadin, hondakin arriskutsuak, ez-arriskutsuak, eraikuntzako eta eraisketetako hondakinak eta udal hondakinak prebenitzearen, kudeatzearen eta tratatzearen alorrean. Dokumentu horren indarraldia amaitzeak eta hondakinen arloko esparru berriak, eta, horretaz gainera, Hondakinen Esparru Zuzentarauaren aldaketak (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren maiatzaren 30eko 2018/851 Zuzentaraua, eta onetsitako beste zenbait zuzentarau), beharrezkoa egin dute autonomia erkidegoaren eremuan hondakinen arloko plangintza tresna berri bat idaztea. ***EAEko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2020-2030 Plana (2030eko HPKP): «Hondakinak Baliabide Bihurtzen»*** da, hain zuzen ere, aipatutako erreminta hori.

Era berean, Hondakinak Prebenitzeko Programa gehitu zaio plan berri horri, eta, horretarako, kontuan hartu da hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 15. artikuluan jasotakoa, 2018/851 Zuzentarauaren 29. artikuluan zehazten dena eta, orobat, VII. eranskinean jasorikoa. Hondakinak kudeatzeko plan autonomikoen edukia, hondakinen eta lurzoru kutsatuen lege proiektuarena, zeina gaur egun izapidetzen ari baitira.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskutsuak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030eko Plana, gainera, Gobernu Kontseiluak 2020ko urtarrilaren 7an onetsitako Euskadiko Ekonomia Zirkularraren 2030erako Estrategiaren eta Europako Itun Berdearen (Green Deal) printzipioen barruan kokatzen da, eta, zehazki, Ekonomia Zirkularrerako Europar Batasunaren Ekintza Plan Berriaren barruan, aurreko plangintzaren esparruan 2015etik egindako lana oinarri hartuta. Estrategia hori ekonomia zirkularraren diseinuari eta produkzioari buruzkoa da, eta erabilitako baliabideak ahalik eta denbora luzeenean baliatu nahi ditu Batasuneko ekonomian.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskutsuak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030eko Plana bi bloketan antolatu da. Alde batetik, makrohelburu estrategikoak, hondakin korronte guztiak biltzen dituztenak eta EAEk hondakinen arloan dituen erronkak lau helburutan

laburbiltzen dituztenak. Bestalde, helburu espezifikoak, korronte espezifikoetan eta hondakinak kudeatzeko hierarkiaren blokeetan ardaztuak.

Honako hauek dira Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrarekin lotura izango luketen helburu estrategikoak:

- Prebentzioa: 2030erako, % 30 murriztea guztizko hondakinen sorrera tasa barne produktu gordineko unitate bakoitzeko, 2016rekin alderatuta.
- Gaikako bilketa eta bereizketa: 2030ean jatorriko hondakinen % 85 bereiztea.
- Balorizazioa: 2030erako, bigarren mailako baliabideetan birbihurtutako hondakinen % 85 lortzea, eta, aldi berean, balorizazio energetikoa % 15 baino gutxiagora mugatzea.
- Deuseztapena murriztea: Deuseztapen bidezko hondakin-kudeaketa murriztea, eta sortutako hondakinen % 15 baino gutxiago deuseztatzea 2030erako.

Tarteko helburu batzuk ezarri dira 2025erako, 2030erako helburuak ez betetzeko arriskua identifikatuz gero planaren aurrerapena eta indartzea aztertzeko mugarri urte gisa.

- Prebentzioa: 2030erako, % 30 murriztea guztizko hondakinen sorrera tasa barne produktu gordineko unitate bakoitzeko, 2016rekin alderatuta.
- Gaikako bilketa eta bereizketa: 2025ean jatorriko hondakinen % 75 bereiztea.
- Balorizazioa: 2025erako, bigarren mailako baliabideetan birbihurtutako hondakinen % 75 lortzea, eta, aldi berean, balorizazio energetikoa % 15 baino gutxiagora mugatzea.
- Deuseztapena murriztea: hondakinen kudeaketa mugatzea, eta 2025erako sortutako hondakinen % 30 baino gutxiago deuseztatzea.

Helburu espezifiko esanguratsuenen artean, honako hauek aipatzen dira:

- 2030erako udal hondakinen sorrera murriztea, biztanleko eta urteko 419 kg-ko baliora iritsi arte
- 2015. urtearekin alderatuta, 2030erako % 50 murriztea elikagai hondakinen *per capita* sorrera, eta 2025erako, berriz, % 25.
- 2019rekin alderatuta, ontzi arinen hondakinen sorrera % 20 murriztea 2030erako eta, 2025erako, berriz, % 5.
- EAEko hondakin arriskutsuen % 100 biltzeko sistema selektibo baten % 100eko estaldura 2025ean (fibrozementu estrukturaleko hondakinak barne).
- Biohondakinetarako merkataritza eta industria establezimenduen % 100ean bilketa bereiziko sistemak ezartzea, egutegi honen arabera: a) 2021eko abenduaren 31 baino lehen, urtean 50 tona baino gehiago sortzen badituzte; b) 2022ko abenduaren 31 baino lehen, urtean 25 tona baino gehiago sortzen badituzte; c) 2023ko abenduaren 31 baino lehen, gainerakoak.
- Udal hondakinen berrerabilera eta birziklatze tasaren % 70 lortzea 2030ean eta 2025ean, berriz, % 55.
- 2030ean, ontzi hondakinen berrerabilera eta birziklatze tasaren % 70ekoa izatea, eta 2025ean, berriz, % 65ekoa.
- 2030ean, udal hondakinak berrerabiltzeko prestakuntza tasa % 10 izatea, eta 2025ean, berriz, % 5.

- 2030erako, EAEko hondakin guztien balorizazio energetikoak % 15 ez gainditzea.
- 2030ean udal hondakinen isurketa tasa % 15era baino gutxiagora mugatzea.

Bestalde, 2022ko apirilaren 9an argitaratu zen ***7/2022 Legea, apirilaren 8koa, ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa***. Legearen xedea da ekonomia zirkularraren printzipioak ezartzea hondakinen arloko oinarrizko legeriaren bidez, bai eta klima aldaketaren aurkako borrokan laguntzea eta itsas ingurunea babestea ere. Hori horrela, 2030 Agendan jasotako Garapen Jasangarriko Helburuak betetzen laguntzen da, eta, bereziki, 12. helburua –ekoizpen eta kontsumo jasangarria–, 13.a –klimaren aldeko ekintza– eta 14.a –itsaspeko bizitza–. Era berean, klima aldaketaren aurkako borrokan egiten duen ekarpenaren esparruan, lege hau koherentea da energiaren eta klimaren arloko plangintzarekin.

Abiapuntu gisa hartzen da hondakin politikek sektore jakin batzuetan enplegua sortzen laguntzen dutela dioen premisa (esaterako, berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestaketarekin lotutakoetan). Hori dela eta, ulertzen da lege horrek lagundu egin nahi duela hondakinen kudeaketaren sektorean enplegua sortzen eta sendotzen.

Lege horrek, 2018/851 (EB) Zuzentarauan sartutako aldaketak eta erabilera bakarreko plastikoei buruzko Zuzentarautik eratorritako betebehar nagusiak jasotzeaz gainera, berrikusi eta argitu egiten ditu uztailaren 28ko 22/2011 Legearen zenbait alderdi, hura aplikatzen den urteetan ekonomia zirkularraren printzipioetan aurrera egiteko lortutako esperientzia baliaturik.

Uztailaren 28ko 22/2011 Legearen alderdien artean (zeinak berrikusi egiten baitira), honako hauek nabarmentzen dira: hondakinaren ekoizlearen erantzukizuna, azpiproduktu kontzeptuen aplikazioa eta hondakin izaeraren amaiera, zehapen araubidea eguneratzea eta bilketa bereizia indartzea. Azken ildo horretan, hondakinen frakzio batzuetarako nahitaezkotasuna eremu guztietara zabaltzen da, ez etxeetara bakarrik, baita zerbitzuen edo saltokien sektorera ere, kalitate handiko lehengai birziklagarriak ahalbidetzeko. Bilketa bereizi horrek, tokiko eskumeneko hondakinen esparruan, berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestaketa indizeak handitzea erraztuko du, eta ingurumenaren, ekonomiaren eta gizartearen aldetik funtsezko onurak lortzea eta ekonomia zirkular baterako trantsizioa bizkortzea ekarriko du. Legeak ez du zehazten modalitate bakar bat toki eskumeneko hondakinen frakzioetatik bereizitako bilketa horiek egiteko, eta toki erakunde bakoitzaren baldintzetara egokitu beharko dira, egiaztatutako arrakasta ereduak kontuan hartuta, hala nola atez ateko bilketa ereduak edo edukiontzi itxiak dituztenak.

Hazkunde ekonomikoaren eta hondakinen sorrerarekin lotutako giza osasunaren eta ingurumenaren gaineko inpaktuen arteko lotura hausteko, legeak aipatzen du hondakinak prebenitzeko politikak sortutako <u>hondakinen pisua murrizteko helburua</u> lortzera bideratuko direla, honako egutegi honen arabera:

- 2025ean, 2010ean sortutakoen % 13.
- 2030ean, 2010ean sortutakoen % 15.

Legearen helburuak betetzeko eta baliabideen efizientzia maila handia izango duen Europako ekonomia zirkularra lortzen laguntzeko, legeak ezartzen du agintari eskudunek beharrezko neurriak hartu beharko dituztela, hondakinak kudeatzeko plan eta programen bidez, eta

bermatu beharko dutela lortzen direla berrerabiltzeko, birziklatzeko eta balorizatzeko honako prestaketa helburu hauek:

a) Papera, metalak, beira, plastikoa, biohondakinak edo beste frakzio birziklagarri batzuk berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestaketara bideratutako etxeko eta merkataritzako hondakinen kopurua pisuaren % 50era iritsi beharko da gutxienez.

b) Eraikuntzako eta eraispenetako hondakin ez-arriskutsuen kopuruak, materialak berrerabiltzeko, birziklatzeko eta beste nolabait balorizatzeko, betelanak barne –eta hondakinen zerrendako 17 05 04 kategorian definitutako egoera naturaleko materialak alde batera utzita–, ekoitzitakoen pisuaren % 70era iritsi beharko du gutxienez.

c) 2025erako, udal hondakinak berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestaketa handituko da, pisutan gutxienez % 55 izan arte; guztizkoaren % 5 behintzat berrerabiltzeko prestatzeari egokituko zaio, batez ere ehun hondakinak, tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak, altzariak eta berrerabiltzeko presta daitezkeen beste hondakin batzuk.

d) 2030erako, udal hondakinak berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestaketa handituko da, pisutan gutxienez % 60 izan arte; gutxienez guztizkoaren % 10, berrerabiltzeko prestatzeari dagokio, batez ere ehun hondakinak, tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak, altzariak eta berrerabiltzeko presta daitezkeen beste hondakin batzuk.

e) 2035erako, udal hondakinak berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestaketa handituko da, pisutan gutxienez % 65 izan arte; guztizkoaren % 15 behintzat berrerabiltzeko prestatzeari egokituko zaio, batez ere ehun hondakinak, tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak, altzariak eta berrerabiltzeko presta daitezkeen beste hondakin batzuk.

Ministroen Kontseiluak 2022ko ekainaren 7an onetsi zuen ***Elikagai xahutzeak eta hondakinak prebenitzeko Lege Proiektua***, estatuan gai horri buruz onartzen den lehen erregulazioa, kontsumitu gabeko elikagai hondakinak murrizteko eta horiek hobeto aprobetxatzen laguntzeko.

Lege hori onetsita, aurrera egin nahi da Nazio Batuen Erakundearen (NBE) 2030 Agendan jasotako Garapen Jasangarriko Helburuak betetzeko bidean. Hain zuzen ere, Garapen Jasangarriko 12.3 Helburuak ezartzen du munduko *per capita* elikagai hondakinak erdira murriztu behar direla txikizkako salmentan eta kontsumitzaileen artean, eta ekoizpen eta hornidura kateetan elikagai galerak murriztu behar direla, uztaren osteko galerak barne. Legeak jardunbide egokiak sustatu nahi ditu, lehen mailako ekoizleetatik hasi (elikagaien uzta eta bilketa fasean) eta kontsumitzaileetaraino (etxean edo taberna eta jatetxeetan); izan ere, elikagaiak katearen fase guztietan galtzen dira alferrik.

Legeak ezartzen duenez, elikagai kateko eragile guztiek eduki behar dute galerei eta alferrik galtzeari aurrea hartzeko plan bat. Horren guztiaren xedea da kateko enpresek beren produkzio prozesuen autodiagnostiko bat egitea, elikagaien galerak non gertatzen diren identifikatzea, horiek minimizatzeko neurriak finkatzea eta beste erabilera batzuetara bideratzea, bai eta horietarako lehentasunen hierarkia bat definitzea ere.

Jomugari dagokionez, lehentasun nagusia gizakien kontsumoak izango du beti, elikagaiak emanez edo birbanatuz. Elikagai soberakinak dohaintzan emateko, kateko eragileek lankidetza hitzarmenak sinatu beharko dituzte enpresekin, gizarte ekimeneko erakundeekin, eta irabazi asmorik gabeko beste erakunde batzuekin edo elikagai bankuekin. Akordio horietan berariaz jaso beharko dira produktuak biltzeko, garraiatzeko eta biltegiratzeko baldintzak, besteak beste.

Bigarren lehentasun ordenan, saldu ez diren baina kontsumo baldintza egokiei eusten dieten elikagaiak bihurtzea aurreikusten da; esate baterako, zukuak, marmelada edo halako produktu bilakatzea, besteak beste. Elikagaiak gizakiek kontsumitzeko egokiak ez direnean, honako hauek erabiliko dira, ordena honetan: animalien elikadura eta pentsuen fabrikazioa; azpiproduktu gisa erabiltzea beste industria batean, hondakin gisa; eta konposta edo bioerregaiak lortzea.

Ostalaritza enpresek kontsumitzaileari erraztasunak eman beharko dizkiote kontsumitu ez dituen elikagaiak kostu gehigarririk gabe eraman ditzan –buffet libreko establezimenduetan edo antzekoetan izan ezik–. Horretarako, elikadura erabilerarako egokiak diren ontziak eduki beharko dituzte, berrerabilgarriak edo erraz birzikla daitezkeenak.

Legearen III. kapituluak jardunbide egokien neurriak ezartzen ditu administraziorako eta kate maila desberdinetarako, elikagaiak alferrik ez galtzeko.

Era berean, legeak lehentasunez kontsumitzeko edo laster iraungitzeko data duten produktuen salmenta sustatzeko deia egiten du, erabilera lehentasunen hierarkiaren arabera.

Elikagai galerak eta hondakinak prebenitzeko eta murrizteko politika planifikatzeko, estatuan eskumena duen organoak plan estrategiko bat egingo du, honako ministerio hauek proposatuta: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura, Gizarte Eskubideak eta Agenda 2030; Kontsumo Ministerioa; Trantsizio Ekologikoa eta Erronka Demografikoa; Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa; Gizarteratze eta Migrazio Ministerioa; eta Atzerri, Europar Batasun eta Lankidetza Ministerioa.

Plan horrek elikagai hondakinen aurkako estrategia orokorra zehaztuko du, bai eta autonomia erkidegoek arlo horretako jardueretan jarraitu beharreko orientabideak eta egitura ere. Plana lau urtean behin berrikusi ahal izango da. Horretaz gainera, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak, aipatutako gainerako ministerioei kontsulta egin ondoren, elikagai galerak eta hondakinak kontrolatzeko plan nazional bat egin beharko du, zeinean kontrol lanetan jarraitu beharreko helburu orokorrak eta lehentasunak jasoko baitira.

Zehapen araubideak hutsegite astuntzat jotzen du elikagai galerak eta hondakinak prebenitzeko planik ez izatea. Kasu horietarako, 2.001 eta 60.000 euro bitarteko zehapen ekonomikoak aurreikusten ditu, bai eta bi urteko epean berrerortzea dakarren bigarren arau hauste arinen edo hortik aurrerakoen kasuetarako ere.

Azkenik, 2021eko abenduaren 31n, ***Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen*** onespena argitaratu zen. Lege horrek indargabetu egiten du *Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko aurreko 3/1998 Lege Orokorra*, eta honako alderdi hauek sustatzen ditu:

- EAEko ingurumena babesteko arau esparrua ezartzen du.
- Administrazio publikoei ingurumenarekin lotuta dagozkien eskumenak argitzen ditu.
- Ingurumen arloko informazioari eta parte hartze publikoari buruzko sistematika diseinatzen du.
- Ingurumenean eragina duten jardueren antolamendua arautzen du, eta, ildo horretan, administrazio prozedurak sinplifikatzea eta bateratzea bilatzen du; orobat, beste maila bat ezartzen du: Ingurumen Baimen Bakarra.
- Interes Publikoko Proiektu deiturikoen artikulazioa sartzen du. Figura horrek ahalmena ematen dio Eusko Jaurlaritzari, euskal herritar guztientzat interesgarritzat jotzen diren ekimen publikoko proiektuak bere kabuz onartzeko.
- Planen, programen eta proiektuen ingurumen ebaluazioaren araubidea eguneratzen du.

- Garrantzi handiko gaiak aipatzen ditu, hala nola ingurumen fiskalitatea edo ingurumena hobetzeko tresnak, bai eta erosketa publiko berdea ere.
- Ingurumen ikuskaritza eta kontrola arautzen ditu, eta laguntza tresna gisa hartzen ditu berriro Ingurumen Lankidetzako Erakundeak.
- Ingurumen legezkotasuna berrezartzea eta ingurumen kalteen erantzukizuna arautzen ditu.
- Ingurumen arloko arau hausteak egiteko pizgarriak kentzea helburu duen zehapen araubide bat ezartzen du.
- Xedapen gehigarri bat ere sartzen du, zeinaren bidez bi urteko epea zehazten baita hondakinak zabortegietan uzteari, errausketari eta hondakinen baterako errausketari buruzko zerga neurriak ezartzeko.

8 EPE LABUR-ERTAINERAKO ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Gipuzkoa hondakinen kudeaketaren arloko erreferenteetako bat da Europan. Hala egiaztatzen dute udalerri mailako hondakin bilketako kopuru altuek eta birziklatze tasek, zeinak Europako helburuen gainetik baitaude. Alabaina, erregulazio eta plangintza esparru berria oso kontuan hartu beharko da Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren etorkizuneko berrikuspenean, zeina 2023rako baitago aurreikusita dokumentuan bertan. Jorratu beharreko alderdien artean planteatzen da, besteak beste, aurreikusitako jarduerak nahikoa ote diren eta, era berean, ezarritako baldintza eta helburu berriak betetzeko egokienak ote diren aztertzea eta ebaluatzea.

Hondakinen sorrera murrizteko proposatutako helburu berriek lurraldeko hondakinen **prebentzioan** ahalegin gehigarria egitea eskatuko dute.

Berrerabiltzeko prestatzeari dagokionez, helburu hori landu egin beharko da datozen urteetan. *Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legea* onestearekin, 2025erako berrerabilerarako prestatzeko helburuak % 5, % 10 eta % 15 izango dira 2025erako, 2030erako eta 2035erako, hurrenez hurren. Eta, ildo horretan, legeak aurreikusten du batez ere ehun hondakinetatik, tresna elektriko eta elektronikoen hondakinetatik, altzarietatik eta berrerabiltzeko presta daitezkeen beste hondakin batzuetatik lortuko direla ehuneko horiek. Hala ere, frakzio horietarako azterketa espezifiko bat egin beharko da, eta eskaintzen duten potentzial erreala ebaluatu; halaxe lortuko da jakitea helburu horretan gehienez ere zenbateraino lagun dezaketen, eta, bide horretan, beharrezkoa ote den beste hondakin frakzio batzuetara jotzea, berrerabiltzeko prestaketa helburua betetze aldera.

Birziklatzeari dagokionez, Espainia osoan eta Europan puntako emaitzak izan arren, ikusten da oraindik ere egin daitekeela aurrera martxan ditugun tratamendu ereduak sendotuz. Horretarako, teknologia berrien aldeko apustua egin da birziklatze indizeak handitzeko, bai eta kalitatea bermatzeko ereduak ezartzearen aldekoa ere, dauden instalazioak ahalik eta berme handienarekin ustiatu ahal izateko.

9 ERANSKINAK

9.1 I. eranskina: Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren adierazleak, 2019-2030

ESPARRUA	FRAKZIOA	XEDAPENA	URTEA	HELBURUA	ADIERAZLEA	EMAITZA	
PREBENTZIOA	HIRI HONDAKINAK	22/2011 Legea	2020	Sorkuntza % 10 murriztea 2010eko guztizkoaren gainean	Sorkuntza % 10 murriztea 2010eko guztizkoaren gainean	–% 8,7	😐
		EAEren plana	2020	Hiri hondakinen urteko 443 kg/biztanle kopurura iristea	Hiri hondakinen sorrera (kg/biztanle eta urte) (eraikuntza eta birgaitzeko hondakinak gabe)	427	☺
	Elikagai hondakinak	Ekonomia Zirkularraren paketea	2030	Elikagai hondakinen sorrera murriztea ekoizpen primarioan, eraldaketan eta fabrikazioan, txikizkako salmentan eta elikagaien beste banaketa mota batzuetan, jatetxeetan eta elikagai zerbitzuetan, bai eta etxeetan ere, Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuei laguntzeko: mundu osoan *per capita* elikagai hondakinak % 50 murriztea txikizkako salmentaren eta kontsumitzaileen salmentaren esparruan, eta elikagaien galerak murriztea ekoizpen eta hornikuntza kateetan 2030erako (2015a oinarri urte gisa harturik).	Elikagai hondakinen *per capita* sorkuntza murriztea, 2015a oinarri hartuta.	% 7,2	☹
	Plastikozko poltsak	293/2018 Errege Dekretua	2019-2025	Neurri hauetako bat ezarriko da, gutxienez: a) urteko kontsumo maila gehienez plastikozko 90 poltsa arin pertsonako izan dadin bermatzeko neurriak hartzea, beranduenez 2019/12/31n, eta 40 poltsa gehienez 2025/12/31n, edo pisuan adierazitako helburu baliokide bat; b) 2018/12/31 baino lehen, salgaiak edo produktuak saltzeko guneetan plastikozko poltsa arinak doan ez ematea bermatuko duten tresnak hartzea, non eta ez diren aplikatzen hori bezain neurri eraginkorrak.	Plastikozko poltsa arinen kontsumoa pertsonako	e.d.	—
			2020	Plastikozko poltsa lodiek plastiko birziklatua izan beharko dute % 50ean, mota horretako plastikoaren erabilera sustatzeko.	Poltsa lodietan birziklatutako plastikoaren batez besteko %	e.d.	—
			2021	Ez erabiltzea plastikozko poltsa arin eta oso arinik. Poltsa konpostagarriak salbuespen dira.	Plastikozko poltsa arin eta oso arinen kontsumoa pertsonako	e.d.	—
	Ontzi arinak	EAEren plana	2020	Frakzio bakoitzaren sorrera % 10 murriztea, 2010eko balioekiko.	Ontzi arinen sorreraren murrizketa 2010ekoarekin alderatuta (%)	–% 13,8	☺
	Beirazko ontziak				Beirazko ontzien sorreraren murrizketa 2010ekoarekin alderatuta (%)	–% 5,9	😐
	Etxeko hondakin arriskutsuak				Etxeko hondakin arriskutsuen murrizketa, 2010ekoarekin alderatuta (%)	% 5,4	☹
	Eraikuntzako eta				Eraikuntzako eta eraisketetako hondakinak murriztea 2010. urtearekin alderatuta	–% 51,8	☺

ESPARRUA	FRAKZIOA	XEDAPENA	URTEA	HELBURUA	ADIERAZLEA	EMAITZA	
	eraisketetako hondakinak						
	Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak				Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak murriztea, 2010. urtearekin alderatuta	% 17,7	☹
	Biohondakinak				Biohondakinak murriztea, 2010. urtearekin alderatuta (%)	% 14,9	☹
BERRERABILTZEKO PRESTATZEKO PROGRAMA	**Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak**	110/2015 Errege Dekretua	2020	Berrerabilera tasa gutxienez % 3koa izatea 4. bilketa frakziorako (aparatu handiak), eta % 4koa 6. bilketa frakziorako (osagai arriskutsuak dituzten informatikako eta telekomunikazioetako gailu txikiak).	Aparatu handiak berrerabiltzeko prestakuntza tasa (%)	% 0,10	☹
					Osagai arriskutsuak dituzten informatikako eta telekomunikazioetako aparatu txikiak berrerabiltzeko prestakuntza tasa (%)	% 0,03	☹
		EAEren plana	2020	Sortutako tresna elektriko eta elektronikoen hondakinen % 5 berrerabiltzeko prestatzea	Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak berrerabiltzeko prestakuntza tasa (%)	% 0,10	☹
	Ehun-hondakinak, tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak, altzariak eta bestelakoak	22/2011 Legea HONDAKINAK KUDEATZEKO ESTATUKO ESPARRUKO PROGRAMA, 2016-2022	2020	Batez ere ehun hondakinen, tresna elektriko eta elektronikoen hondakinen, altzarien eta berrerabiltzeko presta daitezkeen bestelako hondakinen % 2 berrerabiltzeko prestatzea (eta helburu espezifikoak frakzio bakoitzeko).	Hiri hondakin guztiak berrerabiltzeko prestakuntza tasa (%)	% 0,84	☹
GAIKAKO BILKETA	Biohondakinak	EAEren plana	2020	Gaikako bilketa eta bereizketa % 60ra igotzea	Biohondakinen gaikako bilketa eta bereizketa tasa (%)	% 52,0	😐
	Eraikuntzako eta birgaitzeetako hondakinak			Gaikako bilketa eta bereizketa % 75ra igotzea	Eraikuntza eta birgaitzeko hondakinen gaikako bilketa eta bereizketa tasa (%)	% 80,1	☺
	Papera/kartoia			Gaikako bilketa eta bereizketa % 60ra igotzea	Paperaren gaikako bilketa eta bereizketa tasa (%)	% 82,0	☺
	Beira				Beiraren gaikako bilketa eta bereizketa tasa (%)	% 81,6	☺
	Ontziak				Ontzi arinen gaikako bilketa eta bereizketa tasa (%)	% 81,0	☺

ESPARRUA	FRAKZIOA	XEDAPENA	URTEA	HELBURUA	ADIERAZLEA	EMAITZA	
	Metalak				Metalaren gaikako bilketa eta bereizketa tasa (%)	% 50,0	😐
	Egurra				Egurraren gaikako bilketa eta bereizketa tasa (%)	% 95,7	☺
	Pilak/bateriak			Gaikako bilketa eta bereizketa % 80ra igotzea	Pilen eta baterien gaikako bilketa eta bereizketa tasa (%)	% 68,4	☹
		710/2015 Errege Dekretua	2020	Merkaturatutako pilen % 50 gaika biltzea 2020an.			
	Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak	110/2015 Errege Dekretua HONDAKINAK KUDEATZEKO ESTATUKO ESPARRUKO PROGRAMA, 2016-2022	2020	Gutxieneko bilketa-indizea merkatuan sartutako tresna elektriko eta elektronikoen batez besteko pisuaren % 65 izango da, edo, bestela, sortutako tresna elektriko eta elektronikoen hondakinen % 85.	Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinen gaikako bilketa (kg/bizt urte)	9,6	☺
	Fibrozementua	EAEren plana	2020	Bilketa sistema egonkorrak ezartzea	Fibrozementu frakzioaren bilketaren estaldura maila (biztanleen %)	% 43	☹
	Etxeko hondakin arriskutsuak				Etxeko hondakin arriskutsuen frakzioaren bilketaren estaldura maila (biztanleen %)	% 100	☺
		Ekonomia Zirkularraren paketea	2025				
	Ehunak				Ehunen frakzioaren bilketaren estaldura maila (biztanleen %) %	% 100	☺
	Biohondakinak	Ekonomia Zirkularraren paketea	2023	Beranduenez 2023ko abenduaren 31n, jatorrian bereizi eta birzikla daitezke, edo bereizita jas, beste hondakin mota batzuekin nahasi gabe.	Biohondakinen frakzioaren bilketaren estaldura maila (biztanleen %)	% 100	☺
BIRZIKLATZEA ETA BALORIZAZIOA	Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak	110/2015 Errege Dekretua	2020	Balorizazioaren (% 75-% 85) eta berrerabiltze eta birziklatzearen (% 55-% 80) gutxieneko helburuak lortzea	Tresna elektriko eta elektronikoen hondakin guztien balorizazio tasa (%)	% 89,5	☺
					Tresna elektriko eta elektronikoen hondakin guztiak berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestaketa tasa (%)	% 84,3	☺

ESPARRUA	FRAKZIOA	XEDAPENA	URTEA	HELBURUA	ADIERAZLEA	EMAITZA	
	Papera/kartoia	EAEren plana	2020	Korronte birziklagarriak % 50 berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestatzea 2020rako (papera eta kartoia, beira, plastikoak, metala, zura).	Papera eta kartoia berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestakuntza tasa (%)	% 77,9	☺
	Beira				Beira berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestakuntza tasa (%)	% 79,1	☺
	Plastikoak				Plastikoak berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestakuntza tasa (%)	% 56,6	☺
	Metalak				Metalak berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestakuntza tasa (%)	% 70,3	☺
	Egurra				Egurra berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestakuntza tasa (%)	% 95,7	☺
	Papera/kartoia	HONDAKINAK KUDEATZEKO ESTATUKO ESPARRUKO PROGRAMA, 2016-2022	2020	.- Papera, metalak, beira, plastikoa, biohondakinak edo beste zatiki birziklagarri batzuk berrerabiltzeko eta birziklatzeko pisuan gutxienez % 50era heltzea. .- 2020rako, % 50era iristea berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestaketan.	Papera eta kartoia berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestakuntza tasa (%)	% 77,9	☺
	Beira				Beira berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestakuntza tasa (%)	% 79,1	☺
	Plastikoak				Plastikoak berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestakuntza tasa (%)	% 56,6	☺
	Metalak				Metalak berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestakuntza tasa (%)	% 70,3	☺
	Egurra				Egurra berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestakuntza tasa (%)	% 95,7	☺
	Brikak				Ontzi arinak berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestakuntza tasa (%)	% 63,8	☺
	Biohondakinak				Biohondakinak berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestakuntza tasa (%)	% 50,9	☺
	Ehunak				Ehunak berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestakuntza tasa (%)	% 25,8	☺
	Bestelakoak				Beste material batzuk berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestakuntza tasa (%)	% 1,4	☹
BIRZIKLATZEA ETA BALORIZAZIOA	HIRI HONDAKINAK	22/2011 Legea - HONDAKINAK KUDEATZEKO	2020	.- Papera, metalak, beira, plastikoa, biohondakinak edo beste zatiki birziklagarri batzuk berrerabiltzeko eta birziklatzeko pisuan gutxienez % 50era heltzea. .- 2020rako, % 50era iristea berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestaketan.	Hiri hondakin guztiak berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestakuntza tasa (%)	% 55,6	☺

ESPARRUA	FRAKZIOA	XEDAPENA	URTEA	HELBURUA	ADIERAZLEA	EMAITZA	
		ESTATUKO ESPARRUKO PROGRAMA, 2016-2022					
		HONDAKINAK KUDEATZEKO ESTATUKO ESPARRUKO PROGRAMA, 2016-2022	2020	Balorizazio energetikoa sortutako hiri-hondakinen %15era irits liteke.	Hiri-hondakin guztien balorizazio energetikoaren tasa (%)	% 40,5	😐
		Ekonomia Zirkularraren paketea	2025-2030-2035	Hiri hondakinen berrerabiltze eta birziklatze tasa handitzea	Hiri hondakin guztien berrerabiltze eta birziklatze tasa (%)	% 55,6	☺
	Ontziak		2025-2030	Ontzi hondakinen berrerabiltze eta birziklatze tasa handitzea	Ontzi guztien berrerabiltze eta birziklatze tasa (%)	% 75,7	☺
				Plastikozko ontzien hondakinen berrerabiltze eta birziklatze tasa handitzea	Plastikozko ontzi guztien berrerabiltze eta birziklatze tasa (%)	% 65,8	☺
				Zurezko ontzien hondakinen berrerabiltze eta birziklatze tasa handitzea	Egurrezkoko ontzi guztien berrerabiltze eta birziklatze tasa (%)	% 92,0	☺
				Burdin metalezko ontzien hondakinen berrerabiltze eta birziklatze tasa handitzea	Burdin metalezko ontzi guztien berrerabiltze eta birziklatze tasa (%)	% 67,9	😐
				Aluminiozko ontzien hondakinen berrerabiltze eta birziklatze tasa handitzea	Aluminiozko ontzi guztien berrerabiltze eta birziklatze tasa (%)	% 53,8	☺
				Beirazko ontzien hondakinen berrerabiltze eta birziklatze tasa handitzea	Beirazko ontzi guztien berrerabiltze eta birziklatze tasa (%)	% 79,1	☺
				Paper eta kartoizko ontzien hondakinen berrerabiltze eta birziklatze tasa handitzea	Paperezko eta kartoizko ontzi guztien berrerabiltze eta birziklatze tasa (%)	% 77,9	☺
		252/2006 Errege Dekretua	2019	Ontzien birziklatze tasa % 55-% 80ra igotzea. Gutxieneko helburuak:	Ontzi guztien birziklatze tasa (%)	% 75,1	☺
				- Beira: % 60	Beirazko ontzien birziklatze tasa (%)	% 79,1	☺
				- Papera-kartoia: % 60	Paper eta kartoizko ontzien birziklatze tasa (%)	% 77,9	☺

ESPARRUA	FRAKZIOA	XEDAPENA	URTEA	HELBURUA	ADIERAZLEA	EMAITZA	
				- Metalak: % 50 - Plastikoak: % 22,5 - Egurra: % 15 Ontzi guztien balorizazio-tasa, pisuan % 60 arte.	Metalezko ontzien birziklatze tasa (%)	% 65,0	☺
					Plastikozko ontzien birziklatze tasa (%)	% 65,8	☺
					Egurrezko ontzien birziklatze tasa (%)	% 87,4	☺
					Ontzi guztien balorizazio tasa (%)	% 99,6	☺
		HONDAKINAK KUDEATZEKO ESTATUKO ESPARRUKO PROGRAMA, 2016-2022	2020	Ontzien eta materialen birziklatze tasa handitzea	Ontzi guztien birziklatze tasa (%)	% 75,1	☺
					Beirazko ontzien birziklatze tasa (%)	% 79,1	☺
					Paper eta kartoizko ontzien birziklatze tasa (%)	% 77,9	😐
					Metalezko ontzien birziklatze tasa (%)	% 65,0	😐
					Plastikozko ontzien birziklatze tasa (%)	% 65,8	☺
					Egurrezko ontzien birziklatze tasa (%)	% 87,4	☺
				Ontzien hondakinen bilketa bereizia handitzea, 2020an birziklatzearen % 70, gutxienez, bereizita jasotako ontzien hondakinetatik etor dadin.	Gaikako bilketatik sortutako ontzi birziklatuak, birziklatutako ontzi guztiei dagokienez (%)	% 96,2	☺
	Eraikuntzako eta eraisketetako hondakinak		2020	Berrerabiltzeko, birziklatzeko eta beste balorizazio eragiketa batzuetarako (lur eta harri garbiak izan ezik) gutxienez prestaketaren % 70 lortzea	Eraikuntzako eta eraisketetako hondakinen balorizazio tasa (%)	% 60,1	😐
DEUSEZTAPENA OPTIMIZATZEA	HIRI HONDAKINAK	1481/2001 Errege Dekretua	2019	Lehen mailako hondakinik batere ez isurtzea	Aldez aurreko tratamendurik gabe isuritako hondakinak (t)	0	☺
		EAEren plana	2020	Hiri hondakinen deuseztapena 2010eko % 49tik gehieneko % 40ra jaistea	Hiri hondakin guztien deuseztatze tasa (%)	% 3,9	☺
		Ekonomia Zirkularraren paketea	2030	Hiri hondakin guztien deuseztatze tasa murriztea			
			2020	Sortutako udal-hondakin guztien isurketa % 35era mugatzea			

ESPARRUA	FRAKZIOA	XEDAPENA	URTEA	HELBURUA	ADIERAZLEA	EMAITZA	
	Eraikuntzako eta eraisketetako hondakinak	HONDAKINAK KUDEATZEKO ESTATUKO ESPARRUKO PROGRAMA, 2016-2022	2020	Zabortegiko deuseztapenaren gehieneko ehunekoa mugatzea	Eraikuntzako eta eraisketetako hondakinen deuseztatze tasa (%)	% 39,9	😐